

Año LII. urtea

129 - 2020

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Nafarroako toponimia
nagusia aztergai:
-oi(t)z, -o(t)z, -(i)(t)z
duten herri izenen
inguruan**

Patxi SALABERRI ZARATIEGI, Iker SALABERRI IZKO

Nafarroako toponimia nagusia aztergai: *-oi(t)z, -o(t)z, -(i)(t)z* duten herri izenen inguruan

Estudio de la toponimia mayor de Navarra: sobre los nombres de pueblo terminados en *-oi(t)z, -o(t)z, -(i)(t)z*

A case study of major Navarrese toponymy: on village names ending in *-oi(t)z, -o(t)z, -(i)(t)z*

Patxi SALABERRI ZARATIEGI
Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP/UPNA)
salaberri@unavarra.es

Iker SALABERRI IZKO
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)
iker.salaberri@ehu.eus

DOI: <https://doi.org/10.35462/FLV129.1>

Jasotze data: 2019/08/02. Behin-behineko onartze data: 2019/09/27. Behin betiko onartze data: 2019/09/30.

LABURPENA

Nafarroako herri-izen multzo bat aztertzen dugu, eta sail batean sartuak direnean azalpena fidagarriagoa dela esaten. Bi talde egin ditugu: *-oi(t)z*, *-o(t)z* dutenena eta *-i(t)z* dutenena. Toponimiak patronimiarekin dauzkan estekak ere ikusten dira. Ondorioetan, ikertu toponimoak deantroponimikoak direla diogu, batzuk zaharragoak direla besteak baino, eta atzizkia berez *-(i)(t)z* dela. Argienak «aingura toponimo»tzat ibiltzea proposatzen dugu, ilunagoak azaltzeko, eta erromanizazioarekin lotzen ditugu: haien oinarriko antroponimo asko latin mundukoak dira, baina toponimoen bilakaera euskararen barnekoa. Honek leku-izenak euskaldunek garatu zituztela frogatzen du.

Gako hitzak: antroponimia; erromanizazioa; latineko genitiboa; patronimia; toponimia.

RESUMEN

Analizamos ciertos nombres de pueblo de Navarra y establecemos que, cuando son incluidos en una serie toponímica, la explicación que se da es más fiable. Hemos hecho dos grupos: los en *-oi(t)z*, *-o(t)z* y los en *-i(t)z*. Estudiamos también la relación toponimia-patronimia. Decimos que los topónimos investigados son deantroponímicos, unos más antiguos que otros, y que el sufijo es *-(i)(t)z*. Proponemos utilizar los más claros como «topónimos ancla», con el fin de aclarar otros más oscuros, y los relacionamos con la romanización, ya que muchos de los antropónimos que están en la base proceden del mundo del latín, si bien la evolución de dichos topónimos es eusquérica. Esto demuestra que se desarrollaron en un ambiente vascohablante.

Palabras clave: antroponimia; romanización; genitivo latino; patronimia; toponimia.

ABSTRACT

We analyze some Navarrese village names and contend their elucidation to be more reliable if integrated in a toponymic set. The names are classified in two groups: those in *-oi(t)z*, *-o(t)z* vs. those in *-i(t)z*. Toponymy-patronymy links are also explored. We infer that the analyzed toponyms are deanthroponymic, that some are older than others, and that the suffix is *-(i)(t)z*. We propose to use the most transparent as «anchor toponyms» so as to clarify the obscure ones, and relate them with Romanization: many of the underlying anthroponyms stem from the Latin world, albeit the toponyms' evolution adheres to Basque. This observation proves that the place names were developed by Basque speakers.

Keywords: anthroponymy; Romanization; Latin genitive; patronymy; toponymy.

1. SARRERA. 2. HIPOTESIAK, DATUAK ETA TOPONIMOEN AZALPENA. 3. EUSKAL HERRIKO ANTROTOPONIMIA ETA ERROMANIZAZIO MAILA. 4. BUKAERAN *BOKALA* + *TXISTUKARI LEPOKARIA* DUTEN TOPONIMOAK. 4.1. Aurrekariak. 4.2. Aingura toponimoak. 5. ONDORIOAK. 6. LABURTZAPENAK. 7. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Lan honetan bukaeran *bokala* eta *txistukari lepokaria* dituzten toponimo nagusiez, herri izenez, mintzo gara, partikularki Nafarroakoez, baina artetan beste herrialde batzuetakoak ere hartzen ditugu ahotan, gure argudio eta arrazoibideari ongi heldu zaizkionean. Halarik ere, ez ditugu akabaila hori daukaten herri izen guztiak aztertu, zio batengatik baino gehiagorengatik, batez ere aldizkari artikulatu batek horretarako lekurik aski eskaintzen ez duelako¹.

Gure xedea, oraingoan, aitzineko lanekin lotura eginez (Salaberri 2011c-rekin bereziki), hainbestek hainbeste aldiz ahotan erabilitako akaberak dituzten herri izenak aztertu eta egiantzekoa zaigun azalpena ematea da, giltza egokia aurkitzea, gure toponimoen sarraila zuloan sartu eta atea nekerik gabe irekiko duen gakoa kausitzea. Izen guztiak ezin esplikatuz oraingoz, baina horietako multzo adierazgarri baten nondikakoa erakustea erdiesten badugu, herri izen sail handixko baten etorkia zein den eta bilakaera nolatsukoa izan den garbi uztea lortzen badugu, gainerateko toponimo gehienxkoenak erreposki-erreposki argituko direla uste dugu, lehenago edo berantago.

1 Tokirik ez horrek eraman gaitu zenbaitetan agiri testigantzak eman gabe uztera.

2. HIPOTESIAK, DATUAK ETA TOPONIMOEN AZALPENA

Ikertzailea libre da nahi duen ustekaria mahaigaineratzeko. Hau gauza agerikoa da eta ez da azaltzeketan hasi beharrik. Hori bai, jaulkitzen duen hipotesiaren ontasuna eta egokitasuna frogatu behar du, datuak eta arau fonologikoak bortxatu gabe. Hemen, jakina, eta aurrera egin nahi bada, ikertzaileak orain arte erran ez den zerbait azalerratu beharko du, datu gehiago dituelako, aitzinekoek ikusi ez duten zerbait ikusi duelako, edo lehen baino datu gehiago edukitzeak gauzak beste era batera ikusarazi dizkiolako.

Delako ikertzaileak, toponimo bakarra esplikatze bide arruntetik ateratzen den zerbaitetara jo behar badu, *ad hoc*-eko azalpena emanen du hain segur. Azalpen hori toponimo sorta edo sail batera heda badaiteke (ikus Salaberri, 2011a, 1029, 1032. or. eta hur.), asmatzeko aukerak franko berretuko dira, nahiz bestelako arazoak ere izan daitezkeen. Hau gauza ezaguna da onomastika ikerketetan. Mitxelena (1976, 55. or.), adibidez, honela dio: «Los nombres de lugar son de manejo cómodo cuando están integrados en series copiosamente documentadas, tales como los nombres de villas en *-uri* [...] o los topónimos en *-aga*».

Guri eskuetaratu zaigun kasu pare bat ikusiko dugu orain. Lehena **-tja(-)* multzoaren bilakaerarena da: emaitza zenbait kasutan *-txa* izan da, erraterako Arabako *Aletxa*-n, *Andetxa*-n eta *Gometxa*-n. Sorburuan *Alletius* (**(uilla) alletiana*), *Antestia* (**(uilla) antestiana*; erdaraz *Antezana* da), *Comitius* (**(uilla) comitiana*) daude, gure irudiz. Hauekin batean, ordea, *Avitius*-etik ateratako *Abezia* (euskaraz segur aski **Abetzia*) daukagu Araban, eta *Abintzao* Nafarroan (*Abínzano* da erdaraz), 1116an *Auizau* (Martín Duque, 1983, 313. or.), 1140an *Abizau* (Lacarra, 1965, 158. or.) eta 1268an *Abitçano* (Felones, 1982, 633. or.) dokumentatua. Multzoa txistukaritu gabe atxiki zuen *Oreitia* ere badugu Araban, aurreko *Oretia* batetik; hondar honen etimoan, ustez, *Olitius* antroponimoa dago, **(uilla) olitiana* alegia. Emaitza bana izatea, apika, toponimo bakoitzaren adinari zor zaioke; ez jakinki segur.

Erran moduan, toponimo sorta edo saila behar izaten da proposatzen den azalpena ontzat hartu ahal izateko. Beste gisan, sistematikoa ez den azalpen etimologikoa dagoenean ere onetsi egin daitekeela iruditzen zaigu, metatesia dagoenean konparaziorako, hau ezin baita ez aurreikusi (Paul, 1886, 64. or.; Menéndez Pidal, 1977 [1904], 184. or.; Bloomfield, 1933, 391. or.; Lehmann, 1992, 203-204. or.; Trask, 2015, 62. or.), ez toponimo multzo jakin batean ezarri.

Etsenplurik argiena Trebiñuko *Golernio* herriaren izenarena da. Guk ez dugu zalantza handirik egiten oinarrian *Cornelius* jende izen ezaguna dugula, eta bilakaera ondokoa izan dela: **(fundu) cornelianu* ‘Cornelioren jabetza, bazterretxea’ > **Corneliano* (euskaran sartu zeneko) > **Gorneljãhõ²* > **Gorneljãhõ* > **Gorneljao* > **Gorneljo*

2 Hasperenaren inguruan Salaberri & Salaberri (2016) ikus daiteke. Horretaz landara, Hualde (1993), Igartua (2008, 2015) eta Egurtzegi (2018) ere irakur daitezke, besteak beste direla. Hualdek berriki (2018) beste gisa batez esplikatzen du *VnV* > *VbV* aldakuntza, baina guk lan honetan azalpen «klasikoa» hobetsi dugu eta ez dugu gaian sakonduko.

> *Golernjo* (ikus Salaberri, 2015a, 206-207. or.). **Gorneljo* > **Gornerjo* ez gauzatzeko tartean «disimilación preventiva», «disimilación profiláctica» deitu izan dena burutu zela pentsa daiteke, aldez aurreko disimilazioa, baina ez dago oztoporik **Corneliano* > **Gorneljãhñõ* > **Gorneljãhñõ* > **Gorneljao* > **Gorneljo* > **Gornerjo* bilakaeraren emaitza gero berriro, dardarkari disimilazioz, **Gorneljo* bihurtu zela onartzeko. Ondorengo **Gorneljo* > *Golernjo* metatesia onimoaren silaba egiturarekin dagoke loturik, *Golérn[j]o*-n silaba astunenak baitarama azentua (ikus Crystal, 2008, 520. or.). Kontuan har bedi, gainera, ozenen arteko metatesia ohikoa dela munduko hainbat hizkuntzatan (ikus Paul, 1886, 64. or.; Menéndez Pidal, 1977 [1904], 184. or.; Bloomfield, 1933, 391. or.; Lehmann, 1992, 203-204. or.).

3. EUSKAL HERRIKO ANTROTOPONIMIA ETA ERROMANIZAZIO MAILA

Badira gure artean, eta antrotoponimoez ari garela, aski onetsirik dauden zenbait puntu, horietakoren batek oraino ilungune bat edo beste ukanik ere. Ontzat hartzen diren horietan *-ano* / *-ao*, *-iano* / *-io* akabailak dituzten toponimoen izaera deantroponimikoa dago, erraterako Nafarroako *Torrano* / *Dorrao* edo *Labiano* / *Labio*-rena, edo *-ain* dutenena (*-arr(i)ain* aipatu multzotik kanpo utzi beharra dago, oraingoz behintzat; ikus Salaberri, 2015b, 242. or.). Uste dugu inork ez diola horri oztoporik paratuko, batez ere euskal aldaeraren aldamenen itxura ez hain eboluzionatua eduki ohi duen erdal forma bizirik eta onik dagoenean. Ordea, ez dakigu denak akort izanen garen *Bakio*, *Bermeo* (< *Bermeio*), *Derio*, *Erandio*, *Lekeitio* eta *Zamudio* ere antrotoponimoak direla errateko tenorean (Irigoién, 1983, 36-37. or., 1986, 51. or., 1992, 224. or.; Salaberri, 2011b, 147-148. or., 2013, 259. or.; González de Viñaspre, 2013, 33. or.), behin baino gehiagotan Kantauri aldeko Euskal Herriaren erromanizazio eskasa nabarmendu baita. Gai honetaz, honela dio Mitxelenak (1982, 150. or.):

La romanización, a juzgar por las muestras que dejó, fue insignificante en Vizcaya, y más todavía en Guipúzcoa y en la parte que correspondió al *saltus Vasconum* en Navarra, pero no fue mucho mayor en la Euskal Herria septentrional. Las inscripciones proceden de zonas en las que la influencia romana se estaba dejando sentir. En el desierto a que acabo de referirme, por el contrario, no hay prácticamente inscripciones y tampoco hay, por lo tanto, onomástica atestiguada, ni latina ni indígena³.

Gorrotxategik (2018, 269. or.), berriz, honela dio, oraintsuko lan batean: «[...] Nafarroako iparraldean, Bizkaian eta Gipuzkoan sumatzen den[epigrafe urritasun]ak arrazoi kulturalak ditu gehienbat, erromanizazioaren eragin mugatuaren ondorioa da, alegia».

3 Dena dela, beste lan batean (1997 [1973], 134. or.), antrotoponimo batzuek dituzten *-iano* / *-io* akabailak ikusirik (*Ceberiano* / *Ceberio*, *Durandiano* / *Durandio*, *Zeriano* / *Zerio*), honela dio: «Acaso se podría, pues, concluir que la terminación *-io* tiene el mismo origen en otros casos. Efectivamente, *-io*, sufijo o mera terminación, es de muy elevada frecuencia: así en nombres de población, sobre todo occidentales como *Amurrio*, *Baquio*, *Barambio*, *Derio*, *Erandio*, etc.; acaso también *Bermeo*, escrito *Bermeio*, *Vermeio* desde el s. XI».

Azalpen deantroponimikoa onesteko oztopoak ezin gaintuzko murru gaitzak bihurtuko dira, seguruenik, *Bilbao* (> *Bilbo*) toponimoaren jatorri antroponimikoa aipatzen denean, baina garbi xamar dago hala dela (Salaberri, 2014, 380. or.), Azkuek (1925, 30. or.) nahi zuen eran, nahiz eta Irigoienek (1986, 72-76, 158-159. or., 1991, 168. or.; ikus, berebat, 1995, 127. or.) elementu osagarriak *bilbe* ‘trama’ eta *aho* zirela pentsatu eta izkiriatu.

Honek guztiak, bistan da, partikulariki toponimoak zaharrak badira, Euskal Herriaren erromanizazioaren gaira gakartzatza. Gu ez gara nor afera horietan sartzeko, historialariak ez garelako, baina ahotan hartu ditugun horiei *Abadiño*, *Berango*, *Durango* eta beste batzuk gehitzen bazaizkie (Salaberri, 2011b, 170. or., 2013, 258. or., 2014, 380. or.), Bizkaiaren «euskalduntasun garbia» pixka bat kafeinagabetu beharko dugu, nonbait Arabaren eta Nafarroaren (Nafarroako *ager Vasconum*-en⁴) deskafeinatze mailara iristen ez bada ere, hots, kafeina pittin bat atxiki badaiteke ere (ikus Irigoien, 1991, 169. or.).

Etorria latinean (edo erromantze goiztiarrean) daukatenei *-ika* bukaera duten toponimoen sail zabala gaineratu eta eratziki behar zaie: *Almika* (< *Albonica*; ‘*Albonius*-en baserria’, *Atxika* ‘*Atxi*-ren bazterretxea’ (ikus Irigoien, 1986, 40-41. or.), *Barandika* ‘*Palantius* edo *Valentius* deritzanaren jabetza’, *Barrika* ‘*Varrius* izenekoaren lurra’, **Funica* > *Fuica* > *Fica* ‘*Funius* izenekoaren ondasuna’, *Gatika* ‘*Catius*, *Cattius* edo *Gatti(u)s* zaionaren bazterretxea’, eta abar (Salaberri, 2011b).

Eta, jakina, era batean edo bestean latinean –inoiz beste hizkuntza indoeuropar batean– etorki duten toponimoen zerrenda ez da Bizkaian ahitzen. Itsasaldea hartzen badugu, sartaldetik sortaldera gatzozela, herri izen gehienak latinetik erator daitezkeela dakusagu: *Zierbena*, *Santurtzi*, *Sestao*, *Bilbao* > *Bilbo*, *Getxo* (Yarza, 2015, 354-355. or.), *Berango*, *Sopela*, *Plentzia*, *Lemoiz*, *Bakio*, *Bermeo*, *Lekeitio*, *Mutriku*, *Getaria*, *Orio* eta *Donostia*, gutxieneko kontuan, Euskal Herritik lekora ere hainbat tokitan edireten dugun *Deba* ez aipatzeagatik. Antrotoponimoen multzoan *Muskiz*, *Derio*, *Erandio*, *Zamudio* eta beste sar daitezke, jakina, baita *Leioa*, *Lemoa* eta abar ere Jaurerrian, *Arroa*, *Gabiria*, *Leintz*, *Oikia*, *Orendain*, *Zestoa* eta beste Probintzian (Salaberri & Zaldua, 2020). Egungo mugatik hurbil, Irunen aldamenen baina Nafarroan, *Bera* antrotoponimoa dugu Bortzerrietan, Itzagaondoko *Beroitz*-en etorkikidea (ikus Salaberri, 2012, 166. or.), eta muga-mugan, baina Lapurdin, *Biriatu* daukagu, Mitxelaren arabera (1971, 259-260. or.) Izarbeibarko *Tirapu*-rekin batean aztertu behar dena, bion etimoa *priuatus* baita, erreterriarraren irudiko.

4 Ez dakigu Mitxelaren (1984, 193. or.) *ager Vasconum* eta Caro Barojak 1945eko lanean darabilena bat datozen, eremuari doakionez. Bestaldetik, Orbaibarko alderdi handixko bat, Oletatik Puiuraino doana, barnean *Makirriain* eta *Santsoain* herriak hartzen dituena, *ager*-tzat eman daitekeen zalantzazko iruditzen zaigu, tokia ezaguturik, eta oztopo bera ikus liteke beste haran batzuek mintzo garenean. Mitxelaren hori, nolanhiko gisan, bat dator egungo euskaldun anitzen iritziarekin: Donostiatik edo Goizuetatik ikusirik Nafarroako Erribera Iruñean berean hasten da, ez beheitiago. Beratar baten ahotik entzun genuen, telebistan eta ez aspaldi, Atarrabia bera ere Erribera dela.

4. BUKAERAN *BOKALA* + *TXISTUKARI LEPOKARIA* DUTEN TOPONIMOAK

4.1. Aurrekariak

Orain erresuma zaharrean *bokala* + *txistukari lepokaria* duten toponimoak ukitu nahi ditugu, berriro ere (ikus Salaberri, 2011c). Frankotan *-az*, *-ez*, *-iz*, *-oz*, *-uz* bukaerak aipatu dira (erraterako Menéndez Pidalek & Tovarrek [1962, 383. or.], «klasikoe-tan»), baina, gure ustez, formulazio zuzena toponimook *-(i)(t)z* akabaila dutela erratea da (ikus Irigoien, 1977, 567. or.; Salaberri, 2003, 75-76. or.). Iturburuari doakionez, latineko genitibotik atera dela uste dugu, bokala aitzinean duen *-nis*-etik hain zuzen ere (ikus Salaberri, 2015a, 45-47. or.).

Ondorio horretara antroponimiaren bitartez iritsi ginen, patronimiaren analisiaren bitartez, hain justu. Izan ere, patronimikoetan, baita pertsona bera izendatzeko ere, anitzetan agiri bakar batean aldaera bat baino gehiago erabiltzen dira. Adibidez, Artaxoako dokumentazioko (Jimeno, 1968, 181, 183, 186. or.; Salaberri, 2003, 72. or.) *Azari Sanuz* eta *Azari Sanz* pertsona bera dira, eta halaber *Semero Sanuz* eta *Semero Sanoz*. Aipatu herritik lekora ere arrunt ohikoak dira holako zalantza edo aldaerak: *Johan Martinetz de Merifuentes* eta *Johan Martinitz de Merifuentes* pertsona bakarra da; orobat *Orti Semenez de Azqueta*, *Fortun Semeneiz de Azqueta* eta *Forti Semeroiz de Azqueta*, eta berdin agitzen da *Pero Semenetz de Gatzçolatz* eta *Pero Semeneiz de Gaçolatz* delakoarekin (Salaberri, 2003, 73. or.). Patronimikoek, erran gisan, aldaera bat baino gehiago ukaiten zituzten: *Domikui(t)z*, *Domikuz*, *Domikiz*; *Eneko(i)tz*, *Eneko(t)z*, *Eneki(t)z* edo *Markoiz*, *Arkoiz*, *Markoz*, *Markiz*, *Markuiz*, *Markuz*, *Markez*, bakan batzuk besterik ez aipatzeagatik (Salaberri, 2003, 170-171, 177-178, 213-214. or.).

Mitxelenak (1954, 436-437. or., 1957, 135-136. or.) garbi zekusan Aragoi eta Nafarroan biziki ardurakoak zirela *-o*, *-onis* deklinatzen ziren *Belasco*, *Enneco*, *Galindo*-ren moduko patronimikoak, eta bi eskualdeetako hizkuntza egoera bana baitzen (erdalduna Aragoi, euskalduna Nafarroa gehiena), gurean *-onis* ohi zegoela zioen, eta Aragoi, horrekin batean, baita *-ones*, *-ons* ere. Erreteriarrek, 1957ko lanean (135. or.), munta handiko puntua ukitzen du, izenak hirugarrenetik deklinatzen zirela garbi uzten baitu, eta orobat hiztunek kezka etimologiko handirik ez zuketela (izkirio lodia gurea da):

No está justificado, a mi entender, hablar en estos casos, como alguna vez se suele hacer, de un cambio de declinación. Es muy discutible que un nombre como *Enneco* tuviera asignado de antemano un puesto determinado en el cuadro de la declinación latina, y, aunque nombres como *Fortunio*, *Sancio* y variantes sean según toda probabilidad continuadores de nombres de la segunda declinación, no hay que olvidar que **para los hablantes, a quienes no podemos suponer excesivas preocupaciones etimológicas**, eran nombres en *-o* exactamente lo mismo que *Enneco* o *Galindo*.

Mitxelenak (1957, 136. or.) ez du uste, Menéndez Pidali aitzia, «erromantzeak falta zuen deklinabidearen oroitzapen ikasia» zela; haren aburuz, berandu eta indarge

erromanizatu zen alderdian gordetako arkaismoa dugu. Maizkoena den *-onis*-en euskarazko aldaera *-oiz* (*-oitz*) zela garbi erraten du (140-141. or.); patronimian berdintzea hau da erreteriarren arabera: *-oiz* (eus.): *-onis* (lat.), *-on(e)s* (errom.). Aitzinago (144. or.), eta hau ere axola handikoa da, Akitanian *-e* edo *-o* zuten teonimoek genitiboa *-enis* edo *-onis*-en egiten zutela dio. Gorrotxategik ere (2000a, 93. or.) uste du, Mitxelenaren oinatzetan, *Enekoitz*-en moduko patronimikoak *Enneco*-ren genitibo singularra den *Enneconis* ereduaren orokortzearen ondorioztat aitor daitezkeela, bokal arteko sudurkaria erorita, euskaraz usaiakoa den bezala.

Erreteriarren hizkuntzalariaren iritzian (Mitxelena, 1957, 141-142. or.), beste bokal bat duten nafar patronimikoek (*Beraxaiz*, *Ogoaiz*, *Axubeleiz*, *Aizubeleiz*, *Lopeiz*, *Miqueleiz*) itxura bera dute, hauetan *-n*-dun aldaerarik ez egonik ere. Ongi ulertu badugu, analogiari leporatzen dizkio Mitxelenak honelakoak. Gero, ondorioztat, honela dio (142. or.):

En la onomástica medieval navarra los nombres acabados en consonante o en *-i* forman el patronímico en *-iz* y recordando la correspondencia lat. *s*: vasc. *(t)z* no habría ninguna dificultad para defender que vasc. *-i(t)z* continúa en todas las ocasiones el sufijo latino de genitivo generalizado a toda clase de temas⁵.

Hemen Aragoiko dokumentuek *-s* eta *-z* bereizketa zorrotz begiratzeko dutela zehazten du (Mitxelena, 1957, 142. or.), eta gehitzen honek bi erabide zirela pentsarazten diola. Berrespena *-z*-ren gibelean, zenbait aldiz, *-e* edo *-i* izatea da, Aragoiko, Galiziako, Asturiasko eta Leongo agiritan. Hortaz, euskaldunek *-nis*-etik ateratako *-i(t)z* ibiltzen zuten, eta inguruko erdaldunek hori eta *-ici*-tik irtendako *-i(t)z* (*i*, *e*) ere bai, azkeneko hau Mitxelenak berak hitzez hitz aipatzen ez duen arren, baina garbi dago iradoki behintzat egiten duela. Gai honetaz ikus Salaberri (2003, 143-145. or., 2015a, 45-47. or.).

Irigoienek (1987, 200. or.) *-itz* atzizki beregaina darabil ahotan, eta dio *-tz* aldaera ere bazeukala, baita *-intz* ere, hau hondarrean *-itz*-ekin berdindu zen arren, betiere patronimiaz dihardukalarik. Autore honek, dena dela, batendako hartzen ditu aipatu berekailua duten patronimikoak eta toponimoak, zehazkiago erranda, toponimoak ere patronimotzat ematen ditu (ikus 1982, 623. or.), oker gure iritzian, iturburuz baliabide bakarra izanik ere, gauza bat baita norbait beste norbaiten alaba edo semea izatea, eta hagitx bestelako afera zerbait norbaiten jabetza, ondasuna izatea, etxea edo lurra. Sistema bizirik egon zen bitartean, gainera, patronimikoa gizalditik gizaldira aldatzen zen (edo alda zitekeen), eskuarki aitaren –hortik «patronimiko» deizioa, «matronimiko» bakan batzuk ere egonagatik– ponte izenaren arabera. Toponimoek, aldiz, beren hola iraun dute, aldaketa txiki zenbaitekin. Honi zor zaioke gorago aipatu dugun patronimia sistemak erakusten duen nabartasun eta morfologia aberastasuna, eta halaber toponimoek (herri izenek) daukaten zurruntasuna.

5 Ikus, berebat, Mitxelena (1954, 437. or.).

Mitxelena, dena dela, 1957ko lanean ez du patronimikoetan edireten dugun *Enekoi(t)z / Eneko(t)z / Eneki(t)z*, *Garindoi(t)z / (G)arindoz / Garindi(t)z*, *Sanoi(t)z / Sano(t)z / Saniz*-en moduko txandakatzean sakontzen⁶ (ikus Salaberri, 2003, 178, 190, 239. or.), eta munta handikoa da hemen darabilgun gairako, leku izenetan kausitzen ditugun *Arroitz*, *Arruiz*, *Beraskoitz*, *Beroitz* vs *Arroze*, *Ezkirotz*, *Zenborotz* aldizkatzeak azaltzeko balio duelako. *Armendaritze*, *Auritz*, *Ostitz* eta beste akabailan *-i* zuten pertsona izenetan oinarritu behar dira gehienetan, direla Mitxelena (1957, 145-148. or.) dioen bezala genitiboak, direla Irigoienek nahi zuen eran (1983, 13. or., 1987, 196-198, 200. or.) nominatiboaren (edo bokatiboaren) bizkiak.

Erreterriako hizkuntzalariak (1957, 145. or.) *Bet(i)ri*, *Pet(i)ri* argi eta garbi genitibotik heldu direla uste du, baina ez du ukatzen pertsona izen batzuk, euskarazko *-ari* < *-ariu(m)* atzizkiaren kasuan bezala, akusatibotik atera zitezkeela, proklisian zeudenean partikulariki, deituraren aitzinean. FHVn (318. or.) *merkatari*, *zamari* eta beste latineko *-arius*-etik eratortzen ditu, bere hola, kasua ahotan hartu gabe. Proposamen honen arabera, latineko deklinabidearen gainbehera jin zenean *Armentarius* > *Armentari*, *Asinarius* > *Azeari*, *Fortunius* > *Fortuni* > *Orti*, *Laurentius* > *Laurenti* (> *Laurendi*), *Placentius* > *Lakenti* (> *Lakendi*) soilteak gertatuko ziren, hau da, nominatiboak kasu marka galduko zuen (ikus, halaber, Mitxelena, 1964b, 155. or.).

Hori arras garbi dago *Armentari*-ren kasuan, Nafarroan, erromatarren denboran, *Armentariu(s)* ageri delako (Marañón herrian; Gimeno & Velaza, 1994, 192-194. or.) eta Leireko dokumentazioan XI. gizaldiko bi *Armentari* dauzkagulako: *Armentari Sanz* eta *don Armentari* (Ezkaroze, 1072; Martín Duque, 1983, 147. or.). Zernahi gisaz, hiru azalpenak ez dira elkarren kontrakoak, elkarren osagarriak baizik, genitibotik, akusatibotik nahiz nominatibotik abiatuta (edo nominatiboaren bibiroa den formatik) pertsona izen anitzek *-i* baitute bukaeran⁷.

Toponimian, oro har, holako dantzarik ez da izaten, toki izenak aise finkatuago egoten dira, Erdi Aroan egungo forma bakartasunetik urrun bagaude ere. Etimologia analisiak, bestalde, oinarrian *-i*-dun aldaera egon zela azaleratzen du (ikus *Zenborotz* eta *Zenborain* pareta, beheerago) eta, gainera, badira dokumentazioan noizbait *-oi(t)z* amaiera duten herri izenak, arruntean *-o(t)z* erakusten duten arren (letra lodia gurea da):

Anotz (Ezkabartekoa edo Olloibarkoa izan daiteke): *Anoytz* (1268, Felones, 1982, 637. or.).

6 Andramendiko *Onsaluch* eta *Saonch* darabiltza ahotan (140-141. or.), eta bigarrenerako *Sansoiz* > *Sanoiz* > *Sãoch* > *Saonch* bilakaera proposatzen du, *aitz* > *atx*-ek eta *bakoitz* > *bakotx*-ek izan duten bera. Nolanahi ere, 1013an (Hidalgo de Cisneros, Largacha, Lorente & Martínez, 1988, 1-2. or.) *Lupe Aboçtarreç*-ekin batean *Albaro Albaroç d'Arroitta*, *Munio Ossandoç de Arroitta*, *Urrana (sic) Uittacoç* eta *Sancio Nunusoç de Aberanka* ditugu Bizkaian, baita *Gellu Nunnusoioç de Arrattia*, *Açenari Sansoioç de Iuarra* eta *Acenari Sansoioç de Berrio* ere. Izkirio lodia gurea da.

7 Ez adibidez *Borte*-k eta *Gendule*-k, segur aski latin berantiarretik edo erromantze goiztiarretik hartu zirelako; ikus Irigoien (1987, 198. or.).

Artazkotz: *Artazcoiz* (1099, Lacarra, 1965, 98. or.; 1280, Zabalo, 1972, 72. or.).

Arzotz: *Arcoiz* (1234, Martín González, 1987, 33. or.).

Azotz: *Açoiz* (1280, Zabalo, 1972, 76. or.).

Bidankoze: *Bidangoiz* (1108-1120, Martín Duque, 1983, 363. or.), «*Bidangoz et Bidangoiz*» (1178, Martín Duque, 1983, 444. or.), «*Pero Argayz, l'abbat de Bidangoiz*» (1308, Ciérbide & Ramos, 2001, 15. or.).

Imizkotz: *don Lope de Imizcoiz* (1262, Ibarra, 1936?, 186. or.), *Pedro Ymizcoiz* (1710, NEAN, 11293/5, 113). Aintzat har bedi Baigorri aldeko Lasan, 1412-13an, *Pes d'Imizcoiztegui* ageri dela (Ciérbide, 1993, 109. or.).

Zildotz: «*Miguel de Çildoyz, carpintero*» (Iruñea, 1458; Ciérbide & Ramos, 2000, 273. or.).

Antroponimia eta toponimia estekatzera eraman gintuena biek daukaten iturburu komuna izan zen lehenik, toponimo nahiz patronimiko izan daitezkeen onimoak ediretea gero, eta sustraian jende izen bera baina bedera berrekailu duten leku izenak kausitzea azkenik. Hona hemen horietako batzuk:

Acut(i)us, Acutio (p.iz.): *Akutiz* (pat.) / *Akotain* (< *Akutain*, her.iz.).

Berasko (p.iz.): *Beraskoi(t)z, Braskotz, Eraskotz* (pat.) / *Beraskoitz* (*Beraskoizko* Leizarragaren eta Haranederren lanetan, *Beskoitze* labur-luzatua egun) (L) / *Beraskoain* (her.iz.) (NG).

Beratsa (p.iz., *Beraxa, Berassa* idatzia): *Beratsaiz* (pat., *Beraxaiz* idatzia) / *Beratsain* (her.iz.) (NG) / *Berastegi* (her.iz.) (G).

Gardele (p.iz.): *Gardeleiz* edo *Gardeliz* (pat.) / *Gardelain* (her.iz.) (A, NG) / *Gardelegi* (her.iz.) (A).

Garze (p.iz.): *Garzei(t)z* (pat.) / *Gartzain* (her.iz.) (NG).

Gaste (p.iz.): *Gasteiz* (pat.) / *Gasteiz* (her.iz.) (A) / *Gastiain* (her.iz.; zalantzazkoa da) (NG).

Gendule (p.iz.): *Gendule(i)z* (pat.) / *Gendulain* (her.iz.) (NG).

Ilurdo, Illurdo, Illurde (p.iz.): *Illurdotz* (pat.) / *Ilurdotz* (her.iz.) (NG) / (*Garsea*) *Illurdoiztegia* (top.) (A). Ohart bekio hondarreko honen -oi- segidari.

Munio, Munnio (p.iz.): *Muniotz, Muñotz* (pat.) / *Muniain, Munain* (her.iz.) (NG, A).

Otsoa, *Otxo(a)* (p.iz.): *Otxoaiz*, *Otxoaiz*, *Otxoiz*, *Otxoi(t)z* (pat.) / *Otxoain* (her.iz.) (NG).

Otxoko, *Otsoko* (p.iz.): *Otsokoiz*, *Otxokoi(t)z*, *Otxokoz*, *Otsokoz* (pat.) / *Otsokain* > *Otsakain* (her.iz.) (NG).

Uso(a): *Uxoiz* (pat., 1043, Oveja, 1983, 8. or.) / *Usotz* (her.iz.).

Zuri(a) (p.iz.): *Zuritz* (pat.) / *Zuritz(e)* (e.iz.) (*Çuridçe*, Uharte Garazi, 1366⁸; Carrasco, 1973, 673. or.; «*Petri señor de la casa de Çuriz*», 1555, NEAN, 1040, Arrastia saila, 2, 22, 22) / *Zuriaga* (e.iz.) («*Martin, seynor de Çuriaga*», Uharte Garazi – Zihia – Uganga, 1350-1353; Ciérbide, 1993: 56) / *Zuriain* (her.iz.) (NG).

Gorago erran dugun moduan, kasu guztietan *-(i)(t)z* atzizkia bat eta bakarra dela uste dugu, latineko (*bokala +*) *-nis* edutezko genitibotik atera dena. Patronimian norbait beste norbaiten alaba edo semea dela adierazten du erabideak, eta toponimian lekua oinarrian ageri den pertsona horrena zela, hastapenean. Ondoren, patronimikoek eta toponimoek hasieran zuten motibazioa galdu zuten, ez baita harrizteko.

Geroztik, ez dugu uste, kasu gehienetan behintzat, *-otz*, *-oz*, *-oze* atzizkiaz mintza gaitzkeen, bokala, palatala ez bada segurik, arruntean oinarriaren zati delako, ez akabailarena. Ditugun emaitzen arrazoa, beharbada, baina aise hobeki aztertu behar den gaia da hau, toponimoaren adinean xerkatu behar da: *-otz* akabera dutenak dira zaharrenak, latin munduko, antzinateko izenak daramatzatenak. *Beraskoitz*, bestalde, *Berasko*-tik sortuko zen, *Beraskoain* bezala, *-(i)(t)z* eta *-ain* berrekailuak beregaindu ziren garaian. Mitxelena (1964a, 86. or.) *-ain* bukaera duten toponimoak *-oz* dutenak baino berriagoak direla dio: «La expansión de los nombres en *-oz* y de los nombres en *-ain* tiene fecha muy distinta, mucho más antigua probablemente en el primer caso que en el segundo, que parece caer ya bien dentro de la Edad Media, aunque sea anterior a los primeros documentos».

Dena dela, badaiteke *-oitz* segida duten toponimoetako batzuk zaharrak izatea, Antzinarokoak; adibidez, Irigoienek *Aionis* proposatzen du (ikus beherago) *Agoitz*-en oinarritako, eta guk ere hala dela uste dugu, eta *Beroitz* ere sasoi berekoa dela dirudi, oinarriko izena (*Bero*) Erdi Aroan azaltzen ez delako, dakigunez.

Honaino erran duguna *-o(t)z* Pirinioetako bukaera zahartzat, Antzinaroko euskararen elementutzat, hartzearen kontra mintzo da. Alabaina, badakigu, Akitaniako idazkunak eta Gaskoiniako toponimia aztertu dituztenek dioten moduan (Séguy, 1951, 218, 221-222. or.; Rohlf, 1952, 221. or. eta hurr.; Mitxelena, 1954, 421-422, 426, 435. or.; Gorrotxategi, 2000b, 147. or.), bazela *-ox* (*-otz*) atzizkia ere, akitanieran. Bien arteko sintesia, bateratzea gauzatu zela pentsatzen ahal dea? Bai, badaiteke zenbait toponimotan hola izatea, baina, oro har, latin etorkiaren alde egiten dugu guk ixpixo eta apostu, ondoko atalean ematen ditugun azalpenetan oinarriturik.

8 Honen amaierako *-e* hori ez da patronimikoaren iturriarekin lotu behar; bestelakoa da, adibidez Luzaideko egungo *Bordelea*-k eta *Parisea*-k dokumentazioan agertzen dituzten *Bordele* eta *Parise*-ren erakoa.

Gorrotxategik (2018, 261. or.) onartzen du latineko genitiboan oinarritutako gure proposamenak (Salaberri, 2011c) *Berakotz*, *Berakoitz* (*sic*) aldizkatzea erakusten duten toponimo batzuk azal ditzakeela, baina ez bestelakoak, euskararen inguruko erro-mantzeetan -òs, -ués dugulako, eta horra iristeko etimoak bokal irekia behar duelako. Latineko *Cicero*, *Ciceronis*-en moldekoek, aldiz, -ōnis zuten, o luzearekin.

Gaskoiniako -òs akabera duten toponimoak alde batera utziko ditugu, horien historia dokumentala ezagutzen ez dugulako. Nafarroan euskaraz -oze eta erdaraz -ués dutenak eskutada bat herri izen dira: *Apardoze* / *Apardués*, *Galoze* / *Gallués*, *Nabaskoze* / *Navascués*, *Nardoze* / *Nardués*. Gainerakoek ez dute diptongatzerik erakusten, nahiz eta muga alderdikoak (edo mugatik ez urrunekoak) izan: *Bidankoze*, *Ezkaroze*, *Uztarroze*... Gure ustez, diptongoa daukaten aldaera horiek Erdi Arokoak dira, eta euskal formatik atera dira, ez zuzenean latinetik, *Lumbier* diptongoduna adibidez (*Irunberri* euskaraz) *Ilunberri*-tik irten den eran, ez latineko etimo batetik, edo *Artieda*, *Bigüézal*, *Güesa*, *Riezu* aitzineko **Artéta*, *Biótzali*, *Górza* eta *Errézu*-tik atera diren moduan, ez Lazioko hizkuntzatik.

4.2. Aingura toponimoak⁹

Toponimoen etorkiaz ihardukitzean biziki axolazkoa da lehenik «aingura toponimoak» deitu ditugunen nondik norakoaren berri ematea, eta euskarritzat erabiltzea ondoren, alegia, garbi edo garbikara dauden herri izenak besteen argigarriztat ibiltzea. Guretako *garbi* edo *garbikara* izatearen zutoinetako bat oinarriko pertsona izena antzinatean, Erdi Aroan edo bietan agertzea da, eta, lehenez kestione, hau da, erromatarren denborakoez kestione, idazkunen batean -*nis* genitiboan deklinaturik aurkitzea diogunaren sendogarri dela iruditzen zaigu. Bestalde, etimologia azalpena hainbat fidagarriagoa dela uste dugu, zenbat eta antroponimoa toponimoak izendatzen duen herriri hurranago kausitu baita, fidagarrienik *in situ* ediren delarik, hau gutxitan baizik gertatzen ez bada ere, zorigaitzez.

Azterketa eskualdeka egiten bada, aingura toponimo horiek alderdi bereko beste izenak azaltzeko balia ditzakegu, tartean inon topatzen ez diren euskal pertsona izen zaharrak eduki baditzakegu ere, edo ezagutzen ez ditugun latinetikakoak. Puntu honetan nabarmendu nahi dugu leku izenen nondikakoari antzemateko *inguru toponimikoa* dei daitekeenak berebiziko munta eta garrantzia duela. Ez dugu argudiabide hau hemen garatuko, geroko gelditzen da, baina, erraterako, azpimarratzekoa eta notatzekoa da eremu ez oso zabal batean, Itzagaondoa – Urraulbeiti – Lizoainibar – Longida alderdi horretan, bata bestetik hurbil-edo, -*ain* edo -(i)(t)z akabaila duten herri izen deantroponimiko hauek ditugula, gutxieneko kontuan: *Lizoain* – *Galdurotz* – *Ilotz* – *Janaritz* – *Oskaritz* – *Urotz* (Lizoainibar), *Beroitz* – *Gergetiain* – *Indurain* – *Urbikain* – *Urrotz* – *Usiain* (edo *Gusiain*, herrixka despopulatua) (Itzagaondoa) – *Apardoze* – *Geretz* – *Nardoze* *Alduate* – *Nardoze Andurra* – *Santsoain* (Urraulbeiti) – *Agoitz* – *Akotain* – *Erdotzain* – *Itoitz* – *Izanotz* – *Meotz* – *Urrozgoiti* (herrixka hustua)

⁹ Gauza berbera ez bada ere, Hanks-ek (2003, IX) antzekoa den *anchor name* terminoa darabil.

(Longida). Badirudi toponimo hauek herria edo herrixka sortu zuenaren izenarekin lotuak daudela, eta ez litzateke kalterako ikertzea bi multzoen (*-ain*-dunen eta *-(i)(t)z*-dunen) arteko aldea, morfologia mailakoaz gainera, bakoitzaren adinean bilatu behar den, Mitxelena nahi zuen bezala (ikus gorago), edo bestelako zergatiak ere badiren.

4.2.1. *Bukaerako txistukari lepokariaren aitzinean -o- edo -oi- duten herri izenetako batzuk*

Agoitz (Longida, NG)

Irigoienek (1987, 195. or.) Badajozko *Camilius Arrus Aionis f(i)lius* dakar eta dio *Agoitz* hortik *-formaz ari da-* atera dela. Tarteko *-g-* hori *yod*-en kontrako soinua da euskaltzain bizkaitarraren arabera (2. or.), euskaraz beste batzuetan ere edireten duguna. Albertosek (1985, 262. or.) Errioxako Herramelluriko *Aio* eta Lugoko *Aius* jasotzen ditu, eta oraingoan ere *Aionis* genitiboa ongi dokumentatua dago, Sorian, Burgosen eta bestetan (HE [Gómez-Pantoja 2013]), eta, hortaz, **(uilla) Aionis > *Aioitz > Agoitz / Aoitz* (palatal disimilazioz) bilakaera izan dela onartzea ez da neke.

Goixko, 1241ean, *Aoyz Uidea* dago (Goñi, 1997, 519. or.), eta *-g-* bigarrenkaria dela pentsa daiteke, edo **Aioitz*-ek bi bilakera ukan dituela: palatal disimilazioaren ondorena den *Aoitz* batetik, eta *yod*-en aurkako belar igurzkaria duen *Agoitz* bestetik. Iku Salaberri (2011c, 35. or.). Beste azalbidea 1079ko *Ahoiz* hartu («*Tercius frater Lope Arceiz, [tenens] Ahoiz et Nagore*», Martín Duque, 1983, 158. or.), eta hemendik (**Ahoitz* ebakitzen zen formatik) *Aoitz* eta *Agoitz* atera direla kontu egitea da.

Alkotz (Ultzama, NG)

Honen oinarria *alke*, *alka* belar izena izan zitekeela genioen (Salaberri, 2011c, 42. or.), baina Solin eta Salomiesek jasotzen duten *Alcius* antroponimoa ere egon zitekeela gehitzen genuen. Hesperia datu basean (Gorrotxategi [koord.], 2005b) *Alco* cognomena ageri da Sagunton («literatura izena» bide da), eta Frantzian ere *Alco* dago (EDH [Alföldy & Witschel, 1997]), ez dakigu zer deklinabide kasutan. Hortaz, Ultzamako herri izenaren etorkitzat **(uilla) Alconis* '*Alco* deritzanaren lurra, jabetza' proposa daitekeela dirudi.

Ataunen 1507an patronimiko itxura duen *Alcoyz* daukagu (*Martin Alcoyz de Ybarrolaburu*, Ayerbe & San Miguel, 2013, 221. or.). Hau, ordea, jatorriz **Balkoiz* batetik ateraia izan daiteke (cfr. *Balcoe* izena eta *Falcoiz*, *Balchoeniz* patronimikoak; Salaberri, 2003, 181-182. or.), enklisian patronimiko batzuk zenbait aldiz herskari ahostunik gabe (igurzkari bihurtzen baitzatekeen bokal arteko lekunean) azaltzen direnez gero: *Munio Berascoiz vs Tota Erascoiz*, *Sanz Domicuz vs Sancho Micuz*, *Garcia Garindoytz vs Orti Arindoiz*, etab. (Salaberri, 2003, 163, 171, 190, 254-255. or.).

Allotz (Deierri, NG)

Ayllotz daukagu 1268an (Felones, 1982, 653. or.). Ongi dokumentatuta dagoen *Allius* pertsona izenetik (Grupo Mérida, 2003, 81. or.; EDH, HE) abiatu beharra dago,

*(*uilla*) *Allionis*-etik. Hemendik **ALioitz* aterako zen, eta hondarrean *-LjV-* > *-llV-* ere gauzatuko zen, **-oitz* > *-otz* ez ezik, albokoak hurbilkaria bereturik eta, ondorioz, palatalizaturik.

Almandoz (Baztan, NG)

Irigoienek (1995, 92-93. or.) oinarrian *Alamando* hipokoristikotik ateratako **Almando* forma dagoela uste zuen. Gerok (ikus Salaberrri, 2009, 199. or.), aldiz, *Alemanto* nahiago genuen eta dugu, *Alamando*, Irigoienek izartxorik paratzen ez badio ere, Euskal Herrian dokumentatu ez delako, gure oroitean, baina bai *Alemanto*. Hastapeneko adiera ‘Alemanto deritzanaren lurra, bazterretxea’ zatekeen. Hemen garbixko dago orduko burujabea zen *-(i)(t)z* atzizkia zuzenean oinarriari eratxiki zitzaiola, latinez euskal atzizki hipokoristikoa zeraman formarik ez zegoelako, jakina.

Hasteko **Alemántotz*-etik, azentu aitzineko silabako bokala erori eta sudurkari ondoko horzkari ahoskabea ahostundu ondoan, *Almandotz* aterako zen, Baztanen berean gero bukaerako txistukaria igurzkariaren alde (*-z*-ren alde) neutralizatu bada ere, Ultzaman-eta gertatu denaren kontra.

Alotz (Longida, NG), *Aloze* (Z)

NTEMren arabera (33. lib., 132. or.), Longidako herri hustua da Felonesek (1982, 640. or.) dakarren 1268ko *Alotz*, Itoizko aurkintza eta, hortaz, egun urpean dagokeena. Oinarria *Allus* antroponimoa da (Grupo Mérida, 2003, 82. or.), zehazkiago, honen *Allonis* genitiboa, *(*uilla*) *Allonis* behar baitugu izena azaltzeko. Genitiboa, oraingoan, ongi dokumentatua dago: *Allonis f(i)lius* (Manzanares el Real, Madril; Villar de Plasencia, Cáceres, eta abar; HE). Hemen ere tarteko **Aloitz* aldaera bat izan dateke. Zuberoko *Aloze* herri izena ere etimo berekoa da. *Cfr. Allotz*.

Anotz (Ezkabarte eta Olloibar, NG)

Orain urte batzuetako lanetan (Salaberrri, 2003, 91. or., 2011c, 46. or.), Irigoieni (1977, 566. or.) jarraikiz, *Anotz* herri izenean Menéndez Pidalek aipatzen dituen *Anno*, *Hanno* geneukala genioen. Orain bestela dakusagun puntu bakarra *Hanno* horren hasierako hasperena da, *Anotz* herri izenek ez baitute sekula *h*-rik, dokumentazioan. Horregatik, *Anno* aldaera hobetsi behar genuke eta pentsatu horri *-(i)(t)z* atzizkia itsatsi zaiola, ‘Annoren jabetza’ adierazteko.

Egun dakusagun beste aukera da zuzenean latinetik abiatzea, *Lapoena Anno(nis) f(ilia)* (HE) baitugu, hau da, etimotzat *(*uilla*) *Annonis* ‘Annoren lurra, bazterretxea’ jotzea. Guadalajarako eta Soriako *Anonis f(i)lius* ere (HE) egokia dateke *Anotz* azaltzeko, bilakaera hau izan dela onesten bada: *(*uilla*) *Anōñh̃itz* > **ANōñh̃itz* > **ANōh̃itz* > *Anoitz* (*Anoytz* 1268an; Felones, 1982, 637. or.) > *Anotz*, alegia, soinu sudurkarituek aurreko *n*-ren sudurkaritasuna indartu dutela onartzen bada.

Apardoze (*Apardués*, Urraulbeiti)

Ikus *Munarritz* sarrera.

Arroitx (*Arróniz*, Doneztebe Iguzkitza, NG), **Arruitz** (Larraun, NG), **Arroze** (*Arros*, Oztibarre, NB)

Arros-etik ateratako *Arro* ezaguna dago hiruren oinarrian, **(uilla) arronis* ‘Arro deritzanaren bazterretxea, lurra’ zehazkiago (ikus Albertos, 1966, 36. or.; Grupo Mérida, 2003, 100. or.; *cfr.* Hispanian agertu diren *Medugenae Arronis f(iliae)* eta *Fa(bi) Pisini Arronis Lerogum* idazkunak, EDH). Gipuzkoan etorki bereko *Arroa* (*Arrona*) dugu (Salaberri & Zaldúa, 2020, 337-338. or.), beste berrekailu batekin, eta Nafarroa Beherean *Arroze* (*Arros*; ikus Salaberri, 2004, 187-188. or., 2011c, 47-48. or.).

Arzotz (Gesalatz, NG)

Salaberri (2011c, 48. or.) lanean Solin eta Salomiesek biltzen zuten *Artius* izenetik eratorri genuen *Arzotz*. Egun, gainera, badakigu *Artius* Pontevedran (HE, Hesperia), Alemanian eta Hungarian (EDH) agertu dela. Etimoa eta bilakaera hauek izanen ziren, beraz: **(uilla) Artionis* ‘Artiusen lurra, bazterretxea’ > **Artzōhîtz* > **Artzōhîtz* > **Artzotz* (*Arcoiz*, *Arçoz*) > *Arzotz* (eus.) / *Arzoz* (erd.).

Zernahi gisaz, *Arcius* antroponimoa ere ongi dokumentatua dago, Lusitanian, Italian eta Germanian (Grupo Mérida, 2003, 98. or., HE, EDH) eta **(uilla) Arcionis*-etik ere abia gintezke, emaitza bera bailitzateke. Halarik ere, errazagoa bide da (ikus, adibidez, Foley, 1973, 253. or.) iturburua *-tj-* izatea. Era batera izan edo bestera izan, toponimoak, euskaran sartu zeneko, egun <tz> idazten dugunaren pareko soinua zukeela kontu egin behar da ezinbestean, beste gisan **Artiotz*, **Arkiotz* ukanen genukeelako, eta holakorik ez da.

Azotz (Ezkabarte, NG), **Aizarotz** (Basaburu Nagusia, NG)

Salaberri (2011c, 48. or.) lanean Kajantok biltzen duen *Attio*-tik eratorri genuen Ezkabarteko herriaren izena, eta erran tartean ausaz **Atzotz*-en gisako bat zegoela. Egun, uste dugu beste azalbide bat ere badela: Hesperian jasotzen den Salamancako *Aisus* pertsona izena, hirugarrenetik deklinatua, izan daiteke etimoa: **(uilla) Aisonis* > **Aizōhîtz* > **Aizōhîtz* > *Azotz* (palatal disimilazioa) > *Azotz*.

Basaburu Nagusiko *Aizarotz* ere jende izen bera zimentarritzat joz azal daiteke: **(fundu) Aisanu* ‘Aisus deritzanaren lurra, bazterretxea’ > **Aisano* (euskaran sartu zeneko) > **Aizano* > **Aizaro* (*cfr.* hiztegi arrunteko *lucanica* > *lukarika*; ikus FHV, 302. or.; Salaberri, 2015a, 316-317. or.). Gero honi, beharrezkoa ez bazen ere, beste anitz herri izenek zuten *-(i)(t)z* bukaera gehituko zitzaion, Arabako *Marquina* / *Markia* → *Marquinez* / *Markiz*-en gertatu den bezala (Salaberri, 2015a, 272. or.). Erka bitez, bidenabar, Erroibarko *Mezkiritz* (NG) eta Donemiliagako *Mezkia* (A), *Mizkina* 102Sean, *Mezquina* 1156an, *Mesquia* 1351n, *Mezquia* 1379an (Salaberri, 2015a, 286. or.).

Beroitz (Itzagaondoa, NG)

Oinarriko izena *Verus* da, erran dugun gisa *Bera* toponimoan ere badatekeena. Horretarako hirugarrenetik deklinatzen zela onartu behar da, hots, **Vero*, *Veronis*. Zaragozan *Sempronio Vero* dago (HE), ez dakigu zein kasutan xuxen, datiboan dagoela pentsa badaiteke ere. Portugalen *Verus [O]culati f.* eta *C. Licinius Verus Medugeni f.* daude (Hesperia). Ikusten den eran, Itzagaondoko toponimoak ez du bokal palatala galdu; bilakaera **(uilla) Veronis* > **Berōh̃itz* > **Berōh̃itz* > *Beroitz* izan dateke.

Estenotz (Gesalatz, NG)

Honen agiri lekukotasunak Salaberri (2017, 226. or.) lanean ikus daitezke. Aski izan bedi orain 1250ean *Extenotz* dagoela oroitaraztea, eta XVI. jendamenetan ere *-zt-* multzoa duen aldaera azaltzen dela, gero, gurean ohikoa izan den moduan, *-st-* bihurtu den arren. Aurreko beste lan batean (Salaberri, 2011c, 49. or.) Solin & Salomiesek (1994, 176. or.) dakarten *Stennius* hartzen genuen oinarri, eta honek **Stennus* aldaera bazukeela erraten. Orain, berriz, badakigu Teruelen *Maria Stenna* bizi zela (HE), eta, hortaz, ez dago zalantza handirik gineikonimoa ere izan zitekeela. Italian *Stennius* eta *Stennia* ageri dira, baita *Stennas* ere, besteak beste (EDH). Beraz, toponimoaren etimoa **(uilla) Stennonis* batean bilatu behar dugu; hemendik, bilakaera arruntez, **Eztenoitx* irtingo zen, eta gero hau *Extenotz* > *Estenotz* bihurtuko zen.

Ezkaroze (Zaraitzu, NG)

XI. gizaldiko lekukotasunetan *-l-* du (Martín Duque, 1983, 57, 68, 92, 94, 103, 127, 147. or.), eta egoki datorkio, hortaz, Bragan (Portugal) ageri den *Scalius* pertsona izena (Hesperia), baita Austriako *Cateius Scali f(i)lius* ere (EDH), hirugarrenetik deklinatuta (ikus Salaberri, 2011c, 50. or.): **(uilla) Scalonis* > **Ezkalōh̃itz* > **Ezkalōh̃itz* > *Ezkaloz* (*Ezcaloz*) > *Ezkarotz*, *Ezkaroze*.

Ezkirotz (Galar zendea eta Esteribar, NG)

Honendako (*E*)*squilo*, (*E*)*scilo* izena behar dugu (Salaberri, 2011c, 50. or.). Kajantok (1982 [1965], 333. or.) *Squilla* eta *Squillus* ere badakartza, baina guk <l> bakarra duen izena behar dugu *Ezkirotz* formara iristeko –bestela **Ezkirotz* baikenuke euskaraz–, eta horixe da Hungarian (EDH) kausitzen duguna: *Scilus Batonis f(i)lius*. Mintzagai dugun izena azaltzeko **(uilla) Scilonis* behar dugu, beti bezala hirugarrenetik deklinatutako forma; bilakaera hau izan dateke: **(uilla) Scilonis* > **Ezkiroh̃itz* > **Ezkiroh̃itz* > **Ezkiroitz* > *Ezkirotz*.

Galdurotz (Lizoainibar, NG)

Antzinatean biziki hedatua zen *Caturo* izena, *Caturonis* genitiboan (HE, EDH). *Galdurotz* lortzeko **(uilla) Caturonis* ‘Caturoren lurra, bazterretxea’ forma har dezakegu abiaburu; gero erreperkusioz **Caturonis* sortu dela pentsatu behar dugu. *Cfr.* *Utzama* ibar izena (NG), *Utzama* 1537 arte gutxieneko kontuan; orobat *Ataungo* (G)

1617ko *Uçama* (Arin, 1969, 491. or.), *Untzama* egun (Del Barrio, 1999), eta Ermuko (B) 1516ko *Vçama*, 1626rako *Uncama* bihurtua, gaur *Untzama* eta *Ultzama* ebakia (Aranbarri, 2001, 359-360. or.). Gorago aipatu dugun *Abintzao* (eus.), *Abínzano* (erd.) Ibargoitiko herri izenaren lehen *-n-* hori ere bigarrenaren eraginari zor bide zaio, aurreneko testigantzetan *Abitçano*, *Auizano*, *Auizau* dugulako. Tankera bertsukoa izanen da *aitzina* / *aintzina* / *altzina* hirukotea; ikus Irigoien (1995, 103. or.) eta Gorrotxategi (2005a, 163. or., *Sebendunon* toponimoa).

**Canturonis*-etik abiatu ez legoke arazorik, sudurkari disimilazioz, **Calturonis* jaio zela kontu egiteko; ondoren **Galdurōhîtz* > **Galdurōhîtz* > **Galduroitz* > *Galdurotz* izanen zen bilakaera. Egia da era honetara gerok (2005, 105. or.) izkiriatu genuenari aurka egiten diogula: zenbait toponimotan atzizkia *-otz* ez, baizik *-rotz* datekeela genioen, saila osatzen dutelako: *Aizarotz*, *Azpirotz*, *Ezkirotz*, *Ezkaroze*, *Lekaroz*, *Urdirutz*, *Urotz*. Nolanahiko gisan, *Aizarotz*-en *tap-*a sudurkari batetik atera zela erran dugu gorago, eta *Ezkirotz*-en eta *Ezkaroze*-n aurreko alboko batetik irten dela ikusi dugu. *Urotz*-en, berriz, oinarriaren zati da, ez atzizkiarena (ikus beherago).

Galoze (*Gallués*, Zaraitzu, NG)

Antzinateko Hispaniako idazkUNETAN *Gallo*, *Gallus* agertzen da, eta Cuencan *Gallone* aldi batean (HE), itxuraz datiboan; *Gallonius* ere bazegoen (EDH). Leireko dokumentazioan 1103an *Gallo Ennecones* dugu (Martín Duque, 1983, 283. or.), eta Zulueta 1201ean *Andregaila* (*Andregaila de Çuloeta*, Goñi, 1997, 390. or.). Hemen *-(i)(t)z* berrekailua **GaLo*, *Gallo* pertsona izenari zuzenean itsatsi zaiola onesteko arazorik ez dago, latinera jo gabe.

Ilurdotz (Esteribar, NG)

Oinarriko pertsona izena ongi dokumentatua dago: *Ilurdo*, *Illurdo*, *Ilurde* (ikus Caro Baroja, 1945, 112. or. eta Salaberri, 2003, 204. or.). Garbi dago antroponimoaren albokoa bortitza zela eta, apika, *iLurdo*, *iLurde* ahoskatzen zela kontu egin beharko dugu, hau da, Erdi Aroko pertsona izenen grafiek (gehienek behintzat) alboko bortitza irudikatzen dutela, ez palatala. Hemen ere *-(i)(t)z* berrekailua zuzenean erantsi izanen zaio oinarriko pertsona izenari; latinera jo beharrik ez dago. Ikus *Munarritz* sarreran dioguna.

Ilotz (Lizoainibar, NG)

Honen sustraian Rohlfsek (1952, 250. or.) dakarren *Illo* Akitaniako cognomena dagoke. Gorrotxategik (1984, 227. or.) eta Delamarrek ere (2007, 109. or.) jasotzen dute izen galiar hau.

Irotz (Esteribar, NG)

Salaberri (2011c, 51. or.) lanean Solin & Salomiesek (1994, 94. or.) dakarten *Irius* izena ibili genuen toponimoa argitzeko, edo, zehazkiago erran, haren **Irus* aldaera, *-us* / *-ius*

oinarri berarekin agertzea ardurakoa baita, latin antroponimoetan. Orain dakusagun beste azalbidea sorburutako *Ilonis* ematea da, *(uilla) *Ilonis* alegia, Austrian *Aptomarus Ilonis f(i)lius* baitugu, Frantzian *Ilonia* (nom.) eta Tunisian *Iloni* (dat., irudiz) (EDH).

Itoitz (Longida, NG)

Segur aski *Titus* antroponimo hedatuan duke etorki orain urpean den herriaren izenak, alegia, *(uilla) *Titonis*-etik atera dateke, disimilazioz. Austrian *Macus [T]itonis f(i)lius* (*sic*) dago (EDH).

Izanotz (Itzagaondoa, NG)

Herrixka hustu honen izena azaltzeko, Caro Barojak (1945, 112. or.) ahotan darabilen 950eko *Izani* edo Ubietok (1976, 139. or.) dakarren Burgosko Montañana herriko 1008ko *Monnio Izani* ez, baizik **Izanno*-ren moduko bat behar genuke, hots, **Izanno* + -(i)(t)z ‘**Izano* izenekoaren lurra, bazterretxea’ (*cfr.* *Izahuri* eta *Villabizán*; Mitxelena, 1976, 62. or.).

Lazkotz (Aranatzaldea, NG)

Herri hustu baten izena da, *Lázkoz* ebakia egun (NTEM, 12. lib., 50. or.), eta berebat deitura. 1197an *Lascoz* ageri da (Lacarra, 1965, 263. or.), 1268an *Lascotz* (Felones, 1982, 659. or.), 1366an *Lascoz* (Carrasco, 1973, 551. or.). Sustraian den izena Palmako eta Hungariako *Lascius* (HE, EDH) da, edo, egokiroago, honen *Lascus* aldaera (*Madena Lasci f[i]lia*), Hungaria, EDH), betiere hirugarrenetik deklinatua: *(uilla) *Lasconis* > **Lazkōh̃itz* > **Lazkōh̃itz* > **Lazkoitz* > *Lazkotz*. Gipuzkoan etorkizat antroponimo bera duen *Lazkao* (*Lazcano*) daukagu, beste atzizki batekin (ikus orain Salaberri & Zaldua, 2020, 241-243. or.).

Madotz (Larraun, NG)

Etorkizko aldaerak -n- zeukan, gero sudurkari disimilazioz galdu zen arren: *Rodrigo Aceari Mandoçquo* (Arakil, c. 1167; Goñi, 1997, 270. or.), *Mandotz* (1268, Felones, 1982, 671. or.). Salaberri (2011c, 52-53. or.) lanean *Mantius* dokumentatuaren **Manto* aldaera aipatu genuen, eta erran etimoa *(uilla) *Mantonis* ‘Mantoren lurra’ zela. Orain badakigu Alemanian *Manto* zegoela (dat.?), eta Kroazian *Mantus Eantis f(i)lius* (EDH).

Nardoze Alduate, Nardoze Andurra (*Nardués-Aldunate, Nardués-Andurra*; Urraulbeiti)

Ikus *Munarritz* sarrera.

Olkotz (Izarbeibar, NG)

Salaberri (2011c, 54. or.) lanean genioen moduan, Solin & Salomiesek (1994, 131. or.) *Olcus* jasotzen dute. *Olkotz*-era iristeko *Olcus*-en **Olcus* aldaera behar dugu,

hirugarrenetik deklinatua: **(uilla) Olconis* > **Olkōhīt̃z* > **Olkōhīt̃z* > **Olkoitz* > *Olkotz*. Alabaina, EDHn *Holconius* dago, eta 4.2.2-n dakuskigun toponimoetan bezala, hemen ere kasu marka galduta **Olconi* irten dela kontu egin daiteke, eta honi *-(i)(t)z* atzizki burujabea eratziki zaiola. Ondorengo bilakaera hau izanen zen: **Olkonitz* > **Olkōhīt̃z* > **Olkōhīt̃z* > **Olkoitz* > *Olkotz*.

Oskotz (Imotz, NG)

Lekukorik zaharrenak *Lope Oscozco* (1257, García Larragueta, 1957, 384. or.), *Hoscotz* (1268, Felones, 1982, 670. or.), *Ozcoç*, *Ozcoz* (1276, 1279, Euskaltzaindia, 1990, 72. or.) ditugu. Egia da gero pare bat aldiz *Asquoz*, *Ascotz* daukagula (*Petrus de Asquoz*, 1277-1286, Ubieto, 1954, 8. or.; *Ascotz*, 1280, Zabalo, 1972, 74. or.), baina gainerakoetan, dakigunez, beti *o* – *o* bokalak dituzten aldaerak edireten ditugu.

Bestalde, egun *-sk-* daukaten beste herri anitzek bezala, honek ere *-zk-* erakusten du berandu arte, *-zk-* / *-sk-* zalantza goiz azaltzen den arren: «*Borboran de Ozcoz* [...] *Martyn Sanz de Ozcoz* [...] *jurados vezinos y conçejo del dicho lugar de Ozcoz*» (1606, NEAN, Ihabengo pr., 1, J. Arano). Gesalatzen ere bazen *Oscoz* izeneko herrixka (1045, Lacarra, 1965, 13. or.; ikus Salaberri, 2017, 241. or.), eta Oskia alde horretan ere bai: *Osquotç* (1024), *Oscoz* (1045) (Jimeno, 2014, 136. or.). Toponimoaren etimologia argitzeko *Oscius* (EDH) izenaren **Oscus* aldaera behar dugula dirudi, hirugarrenetik deklinatua: **(uilla) Osconis* ‘Oscus izenekoaren lurra, jabetza’ > **Ozkōhīt̃z* > **Ozkōhīt̃z* > **Ozkoitz* > *Ozkotz*, *Oskotz*.

Zernahi gisaz, Hispanian ongi ezaguna zen *Cosconius* antroponimoa (EDH), eta, horregatik, egokiago iruditzen zaigu izen hori abiagune hartzea, kasu marka galdutako *Cosconi* alegia, segur aski genitiboa ere izan zitekeena (ikus gorago). Antroponimoak Erdi Aro arte iraun zuela kontu egin beharko da, eta sasoi horretan jabegoko *-(i)(t)z* berrekailua erantsi zitzaioala; belar disimilazioa ere baitezpadako dugu, toponimoa esplikatuko badugu: **Cosconitz* > **Gozkōhīt̃z* > **Gozkōhīt̃z* > **Gozkoitz* > *Ozkotz* > *Oskotz*.

Urotz (Lizoainibar, NG)

Ikus *Uritz* sarrera, beheiago.

Urrotz (Lizoainibar), **Urruz** (Malerreka), **Urrozgoiti** (Longida) (NG)

Oinarrian dagoen antroponimoa Portugalen ediren den *Urrus* da (HE); ezagunak dira, orobat, *Murrus*, *Reburus* (ikus Vallejo, 2005, 381-390. or.) eta *Seurrus*. Etimoa **(uilla) Urronis* izanen da, eta ondoko bilakaera hurrengo hau: **Urrōhīt̃z* > **Urrōhīt̃z* > **Urroit̃z* > *Urrotz*.

Usotz (Artzibar, NG)

Toponimoaren oinarrian *Uso* (Lekeitio, 1511; Enríquez, Hidalgo de Cisneros, Lorente & Martínez, 1997, 123. or.), *Usoa* (Ollotz, 1145; Lacarra, 1965, 169. or.) pertsona

izena dago. Honi *-(i)(t)z* atzizkia gehituko zitzaion eta, beraz, ez da Antzinarora jo behar, azalpen eske.

Ustarrotz (Eguesibar), *Uztarroze* (Erronkaribar)

Ikus *Munarritz*.

Zenborotz (Galipentzuko aurkintza, NG)

Etimologia *Sempronius* izen ezagunean bilatu behar da (...*cum P[ublio] Sempronio*, Arre, HE) (Salaberri, 2011c, 56. or.), Untzitibarko *Zenborain*-en kasuan bezala, azken honendako zuzenean *Sempronianus* (Aguilar Kodes; Castillo, Gómez Pantoja eta Mauleón, 1981, 67. or.; Sevilla, HE; Lisboa, Mérida, Talavera de la Reina..., Grupo Mérida, 2003, 296. or.) eratorriaren *Semproniani* genitiboa (**(uilla) Semproniani*) proposa badaiteke ere.

**(uilla) Sempronionis* > *Zenborotz*-en bilakaera esplikatzen den era bat baino gehiago daude, aldakuntzen kronologia erlatiboaren arabera. Azalpenetako bat hau da (ikus Salaberri, 2011c, 56. or.): **(uilla) sempronionis* > **Zenboronionitz* (latineko *s-* eta euskarazko *z-* bat-bertzat hartu, bokal anaptiktikoa gehitu eta sudurkari ondoko herskari ahoskabea ahostunduta) > **Zenboronitz* (haplologia eta bokal disimilazioa) > **Zenborõñhitz* > **Zenborõñhitz* > **Zenboroitz* > *Zenborotz*.

Egia da, halarik ere, **Sempronionis* genitiboa ez dela agertzen, eta *Sempronius* eta *Sempronianus* biziki ezagunak zirela. Lehena ibarburuan berean, Oibar herrian, ageri da: *L(ucius) Sempronius Geminus* (EDH). Hortaz, badaiteke toponimoaren iturria kasu marka galdutako *Semproni* izatea, honen euskarazko aldaera bat alegia (**Zenborohi*), *-(i)(t)z* atzizki orduko burujabea hartuta; bilakaera honelako zerbait izanen zen: **Zenborohitz* > **Zenboroitz* > *Zenborotz*.

Zenotz (Ultzama, NG)

Honen oinarrian (Salaberri, 2003, 87. or., 2011c, 56. or.) Erdi Aroko *Keno* pertsona izenaren **Zeno* aldaera dagoke (hasierako soinuaren kariaz, *cfr. Zendea* eta *Gendea(ria)*, errate baterako). Guztiaz ere, *Senno* ere bada (*Senno, Castilla Sennonis filia...*, EDH), eta arazorik ez dago etimoa eta bilakaera **(uilla) Sennonis* > **Zenõñhitz* > **Zenõñhitz* > **Zenoitz* > *Zenotz* izan direla onartzeko.

Zildotz (Ezkabarte, NG)

Belgikan *Siltius* zegoen (EDH) eta, *-us / -ius* txandakatze ohikoa ezaguturik, **Siltus* ere bazela kontu egitea ez da asmakeria izanen. Hirugarrenetik deklinatutako genitibotik, **(uilla) siltonis*-etik, arazorik gabe aterako zen *Zildotz*.

Beste azalbide bat toponimoaren sustraian Germanian ageri den *Sinto* zegoela pentsatzea da, *Sintonis* genitibo dokumentatua (EDH): **(uilla) Sintonis*-etik sudurkari disimilazioz **Siltonis* irtengo zen, eta hemendik *Zildotz*. *Cfr. Galdurotz*.

Zirotz (Ibargoiti, NG)

Oinarrian Penintsulan ongi ezaguna den *Silo* pertsona izenaren *Silonis* genitibo-boa dukegu (HE; *Silonius* ere bada). Iruñean ere ageri da, baina ez osorik: [*Sextilus Silonis*] (Castillo, Gómez-Pantoja & Mauleón, 1981, 83. or.). *Cilonis* (gen.) ere badago, Britanian, Germanian, Hispanian, Italian (*Cilonius*-ekin batean), Kroazian eta Montenegron (EDH), eta bistan da honetatik berdin erator daitekeela gure toponimoa. Nolanahiko gisan, *s*-dun aldaera ugariagoa da eta bertan ere edireten dugu, eta, horregatik, lehenestekoa dela uste dugu. Bilakaera hau izan dateke: **(uilla) Silonis > *Zirōhītz > *Zirōhīt̃z > *Ziroitz > Zirotz*. Beste aukera *Silo* izena gurean **Ziro* bihurtu zela onartzea da, eta honi zuzenean jabegoko *-(i)(t)z* atzizkia erantsi zitzaiola.

4.2.2. *Bukaerako txistukari lepokariaren aitzinean -i- duten herri izenetako batzuk***Aniz** (Baztango herria, Mañeruibarko herri hustua, NG)

Han-hemen errepikatzen den toponimoa da, *Anitz* ere dokumentatua. Menéndez Pidalék (1986 [1926], 209. or.; 1962, 70. or.) *Anni Obecoz* (1011) aipatu eta *Hanno*, *Hanniz*, *Fanne*, *Fanniz*-ekin lotzen du. Gure toponimoak ez du hasierako *h*-rik izaten, eta, horregatik, badirudi hobe dela *Anico* (*d'Ursue*, 1359; Salaberri, 2009, 145. or.) hipokoristikoaren azpian den *Ani* (< *Anni*) pertsona izenarekin lotzea (Sevillan, Italian, Marokon, Aljerian eta bestetan *Annius* dugu, EDH).

Argiñaritz (Mañeruibar, NG)

Dokumentaziorik zaharrenean *ñ* ez da ageri: *Arhinariz* (1099, Ubieto, 1951, 316. or.), *Dominicus de Arguinariz* (Lizarra, 1236; Lacarra, Martín Duque, Zabalo & Fortún, 1986, 35. or.), *Arguinariz* (1268, Felones, 1982, 655. or.). Ez dakigu zer heinetan den hau kontu grafiko hutsa. *Argenianus* Montenegron ageri da eta *Argius* Hispanian (EDH); Solin & Salomiesek (1994, 21. or.) *Arginnus* dakarte. Honetatik edo **Arginnius* aldaera batetik *Arguiñano* / *Argiñao* (Gesalatz) atera dateke, menturaz hasieran *Arguinano* / **Arginao*: *Arguinano* (1268, Felones, 1982, 653. or.), *Arguinmano* (1280, Zabalo, 1972, 156, 160. or.), etab.

Nolanahi ere, *Arginaritz*, *Argiñaritz* erdiesteko *Argiñano*, *Arginano*-ri, analogiaz edo, *-(i)(t)z* bukaera gehitu zaiola kontu egin behar da (*cfr. Etxano* / *Etxaniz* eta ikus *Aizarotz* aztertzean erran duguna, *Aizotz* sarreran), eta **Argiñanitz*, **Arginanitz*-etik gero, sudurkari disimilazioz segur aski (baina *r* aurreko *n* baten ordezkoko soinua ere izan daiteke, sudurkaria hasperendu eta), egungo aldaera atera zela (**Mezkinitz > Mezkitz*-en bezalatsu, hain segur).

Aritz (Itza zendea, NG)

Oinarriko izena Portugalgo *Arius* (*C. Arius Apilocus Eburi f.*) dateke (Hesperia). Hau da, *Arius* horrek bukaerako *-us* galduko zuen eta gero jabetza adierazten zuen *-(i)(t)z* berrekailu beregaina hartuko.

Enderitz (Olaibar, NG)

Sorian (HE) agertu den (*Domittia*) *Entelia*-ren **Entelius* gizon aldaera behar dugu oinarritako. **Entelius*-etik ateratako **Enteri-ri* *-(i)(t)z* erantsiko zitzaion, eta gero herskari ahoskabea ahostunduko zen. Erka bedi *Armentarius* > *Armentari* → *Armendaritz(e)*-rekin.

Garritz (Arakilgo herrixka hustua, NG), **Garrüze** (*Garris*, Amiküze, NB)

Ikus *Munarritz* sarreran dioguna.

Geretz (*Greze*, Urraulbeiti, NG)

Mitxelena (1954, 417. or.) eta Gorrotxategi (1984, 209. or., 2003, 31. or.) aipatzen dituzten *Gerexo*, *Gerexso*, *Cereco Tessebari* antroponimoen *Gere-* dateke Nafarroako herriaren oinarriko pertsona izena. Bukaera jabetza adierazten duen *-(i)(t)z* izanen da, eta osotasunaren etorkizko adiera ‘*Gere* izenekoaren ondasuna, lurra’.

Nolanahi ere, aintzat hartu behar da akaberan *-e* zuen *Andere*-k datiboa *Andereni* zuela Akitanian (Mitzelena, 1954, 417, 424. or., 1964b, 16. or.) eta, beraz, *Andere*, *Anderenis* deklinatzen zela (Mitzelena, 1957, 144. or.; Gorrotxategi, 1984, 127. or., 2003, 33. or., 2018, 261. or.; Irigoien, 1987, 197. or.). Eibarko irakasleak dioenez (1984, 127. or.), badira deklinabide horretara egokitu diren beste izen batzuk, eta, geroztik, baliteke *Gere*-k ere berdin jokatu eta *Geretz*-en oinarrian *(*uilla*) *Gerenis* egotea. Hala izatera, hemen ere diptongoaren bakuntzea burutu dela onetsi behar genuke, hau da, *-ej-* > *-e-* gauzatu dela: **Gerēhītz* > **Gerēhītz* > **Gerehitz* > **Gereitz* > *Geretz*.

Jaitz (*Salinas de Oro*, Gesalatz, NG)

Etimoan dagoen antroponimoa kasu marka galdutako *Ianius* da (Extremadura, Frantzia, Italia, Alemania, Dazia, HE, EDH), **Iani* alegia, eta bukaera jabegoa adierazten duen *-(i)(t)z* atzizkia. Lehen lekukotasunetan *Ianiz* agertu ohi da, eta inoiz *Janiz* (Salaberrri, 2017, 230-233. or.).

Janaritz (Lizoainibar, NG)

Oinarria *Januarius* da Caro Barojaren arabera (1945, 105-106. or.; *Ianuarius* dugu Astorga, Cuenca, Jaén, Kordoba, Sevilla eta Tarragonan, HE; Agurainen *Segontius Ianuari f.* dago, Hesperia), baina zehatzagoa litzateke sustraian haren *Ianarius* (*Secundus Caetus Ianarius*, Coruña, HE) aldaera dagoela erratea, hots, *-us* kasu marka galdutako **Ianari*.

Nolanahiko gisan, **Ianari*-tik abiatuturik bokal arteko sudurkari ahula eroriko zen eta, **Jaritz*-en erakorik ez baitago, **Iannari* (< **Iann(u)arius*) proposatu behar genuke etimotako. Ez dakigu, dena dela, *Ianuari(us)* hautatuz gero ez ote den pentsatzen ahal *w* hurbilkariaren galera ordaintzeko sudurkaria lauzkatu zela, hots, «compensatory

lengthening» edo konpentsazio luzapena deitzen denaren erako zerbait gauzatu zela (ikus De Chene & Anderson, 1979), baina kontsonantean, hau da, geminazioa (ikus Hayes, 1989, 270. or.; Kiparsky, 2010, 34. or.).

Mezkiritz (Erroibar, NG)

Ikus *Azotz*, *Aizarotz*.

Munarritz (Goñerri, NG)

Iduri duenez, *Munarro* (*Lorenz Munarro*, *Pero Monarru*, Artaxoa, 1330; Carrasco, 1973, 301. or.) da iturburuan dugun antroponimoa. Honetatik, alabaina, patronimikoetan izaten den *Garindoi(t)z* / *Garindiz*-en erako aldizkatzea (ikus Salaberri, 2003, 190. or.) gauzatu dela pentsatzen ez bada, **Munarroitz* > **Munarroitz* aterakozen atzizkia gehitu eta diptongoa laburtu ondoren, edo zuzenean **Munarroitz* bestenez, eta holakorik ez dago, guk dakigula. Tankera honetakoak dira, zernahi gisaz, *Urtarroitz* > *Ustarro(t)z* (Eguesibar) eta *Uztarroze* (Erronkaribar) herri izenen azpian diren **Urtarro* eta **Uztarro* antroponimo ezezagunak. Aldera bitez *Gaiztarro* pertsona izenarekin eta honen *Gaiztarroiz* patronimikoarekin (Salaberri, 2003, 187-188. or.), edo *Lazcarro*-rekin (*Lope Lazcarro*, Artaxoa, 1330; Carrasco, 1973, 295. or.).

Nolanahi ere den, ematen du *-rr-* dun pertsona izen horiek, zenbait aldiz, ez dutela bokalik bukaeran, eta beste batzuetan *-i* dutela. *Cfr. Ahoztar*, *Ahostar*, *Aostarri* jende izenak eta *Ahoztarrez*, *Ahoztarritz* patronimikoak (Salaberri, 2003, 148. or.). Orobait *Oxanar* (*Ossanar* idatzia, 1096, Martín Duque, 1983, 221. or.) eta *Oxanarritz* patronimikoa (Salaberri, 2003, 230. or.), *Lehoari*, *Leioar*, *Lifuar* (**Lihuar* alegia) eta *Leioarritz*, *Leioarrez*, *Liuarritz* patronimikoak (Salaberri, 2003, 210. or.). Hondarreko honek, Irigoienek (1986, 34. or., 1987, 4-5. or.) nahi duen bezala *Legionarius*-etik atera bada, *fortitio*-a ukan duke, dardarkaria akabailan gelditzearekin (*cfr. Luzaidoko egungo papper*, *plazerra*). Ez dakigu Cardenako *Gallopensar*, *Gallo Pensar* (944-950, 956, Martínez Díez, 1998, 77, 119. or.) aipatu ditugun horiekin loturik dagoen, ‘Galipentzukoa’ besterik ez den edo beste zerbait. Aintzat eduki bedi, berebat, *Uztarroze*-ren aurreneko testigantza, Erronkaribarko herriarena bada segurik, 1057ko *Uztarres* dugula (Martín Duque, 1983, 89. or.). *Belastar*, *Larristar* ere ageri dira Erdi Aroan (Caro Baroja, 1945, 165. or.; Mitxelena, 1954, 436. or.; Irigoien, 1986, 208. or., 1990b, 71. or.).

Aipatutako eta ustezko pertsona izen horiek Akitaniako idazkUNETAKO *Senarri*, *Senarri*-rekin ikuskizunik baduten ez dakigu, besteak beste hondarreko hori nola irakurri behar den garbi ez dagoelako, Mitxelenaren (1954, 414. or.) eta Gorrotxategiren (1984, 267-268. or.) arabera. Bigarren autoreak *Senarri* irakurri behar bada «estaríamos ante un derivado con suf. *-tar*, *-tarris*, frecuente en nombres pirenaicos, aunque éste sería el único ejemplo conocido de nombre de mujer» esaten du, eta *Halscotarris*-ekin alderatzeko eskatzen. Izena *Senarri* irakurri behar bada, *-(a)rr*o atzizki batean pentsa daitekeela gehitzen du, *Hanarro* datiboak duen moduko batean. Oraintsuko lan batean (2018, 260. or.) *-rr*o- ematen du atzizkitzat. *Halscotarris* genitiboari doakionez, Gorrotxategik (1984, 214. or.) uste du, Mitxelenaren bidetik (1954, 416-417, 419. or.),

osagaiak beste onimo batzuetan ere agertzen den *Halsco*- izena eta *-tar(r)* berrekailua direla, hasperendurik edo hasperendu gabe *Baisothar*[(gen.), *Bihotarris* (gen.), *Bontar* (nom.), *Harontarris* (gen.), *Hotarri* (dat.), *Hotarris* (gen.), *Sembetar* (Lizopek jasoa) eta aipatu *Sentarri*-n (dat.) daukaguna¹⁰. Mitxelenak (1954, 419. or.) *Hana-* (*Hanna-* ere bada) oinarria dakusa *Hanarro*-n, *Hanabus* eta *Hanaconis*-ekilako erkatzetik hori on-dorioztatzen baita. Gorrotxategik (2018, 255-256. or.) *Hanna-* lehenesten du oinarri-tako eta erraten *anaia*-ren ordaintzat har litekeela, hasperena arazoa bada ere.

Bukaeran *-ar(V)* dituzten izenen artean *Apardoze* eta *Nardoze*-ren oinarrian daude-keen **Apar-* eta **Nar-* antroponimoak ere sar litezke menturaz, Hagenbacheko zila-rrezko xafletan *Carerdonis* (gen.) eta *Sembedonnis* (gen.) ageri baitira (Gorrotxategi, 2003, 31, 33. or., 2018, 255, 262. or.), *-do* atzizkia duten **Carerdo* eta *Sembedo*, alegia, **Carer-* eta *Sembe*. Cfr., orobat, *Ilurdo*, *Lapurdo* (Irigoien, 1990a, 48-49. or.) eta Ascoliko brontzeko *Agerdo*, *Burdo* (Untermann, 1998, 78. or.).

Amikuzeko *Garriz*-ek, egun *Garrüze* bilakatuak, eta Arakilgo *Garritz* herrixka hus-tuaren izenak ere (orain Hiriberriko aurkintza da) taxu honetako antroponimoa edo teonimoa dukete oinarrian, *Garr-* (*Garre deo* eta *d[eo]* *Garri* Akitanian; Mitxelena, 1954, 424, 430. or.) alegia. Honetaz ikus bedi Salaberri (2016, 259-260. or.).

Muskitz (Imotz, NG), *Muskiz* (B)

Oinarrian Kroazian ediren den *Muscius* izena dago (*C(aius) Muscius Maternus*, EDH). Portugalen (HE) *Muscio* daukagu, ez dakigu ongi zer kasutan. *Armentarius* > *Armentari* + *-(i)(t)z* → *Armendaritz(e)*-n bezala, **Muzki* aldaera laburtuari, *-us* gal-dutakoari, *-(i)(t)z* itsatsiko zitzaion. Hasierako erranahia ‘*Muscius* izenekoaren lurra, bazterretxea’ zatekeen.

Oiz (Malerreka, NG)

Oinarriko antroponimoa Sevillan dokumentatzen den *Oius* (*G(aius) Oius Secundus*) (HE, EDH) izanen da. Besteetan bezala, kasu marka (*-us*) galdu eta gero *-(i)(t)z* atzizkia erantsiko zitzaion, lagun horren lurra edo jabetza izendatzeko.

Oritz (Elortzibar, NG)

Olius pertsona izena dagoke honen etimoan, Gipuzkoako *Orio*-n eta *Oria*-n ere ageri bide dena (Salaberri & Zaldua, 2020, 237-239, 295-296. or.); erabidea *Aurius* → **Auri* → *Auritz*-en dugunaren modukoa izanen zen. Etorkiz ‘*Olius*en jabetza’ zatekeen *Oritz*. Ezin guztiz baztertu, alabaina, *Aurio*, *Orio*-ren familiako izen batetik atera delako ideia (cfr. *Muscius* eta *Muscio* → *Muzki(t)z* > *Muskitz*, *Muskiz*).

10 Orain Soriako *Ar[.../.../]thar* ere gehitu daiteke; ikus Gorrotxategi (2018, 272. or.).

Osteritz (Esteribar, NG)

Albaceteko, Italiako eta bestetako *Hostilius* (EDH) dateke etimoa, **Ostili* alegia, *h*-orduko grafema hutsa baitzen latinez (ikus Gorrotxategi, 2018, 263. or.). Honi atzizkia gehituz gero **Ostilitz* > **Oztiritz* > *Ozteritz* (1268, Felones, 1982, 643. or.) > *Osteritz* aterako zen, bokal disimilazioz. Arazoa da *Ostariz* ere goiz ageri dela, pare bat aldiz gutxienez.

Ostitz (Odieta, NG)

Dokumentazioan *-zt-* ohi dauka, berandu arte: «*Otra peça en [...] Eunçea afrontada con el camino real que ban [...] al lugar de Oztiz. Otra peça en [...] Oztizbidea*» (1608, NEAN, Uharteko pr., 42, M. de Sorauren). Oinarria Italia, Hungaria eta Mazedoniako *Hostius* (EDH) da (Sagunton *Hostus* dago; Hesperia) eta bilakaera honelako zerbait: *Hostius* → **Osti* + *-(i)(t)z* → *Oztitz* > *Ostitz*.

Uritz (Artzibar, NG)

Oinarriko izena Lisboako *Urius* da (HE). Uste izatekoa da **Urus* ere bazela (erka bedi *Paternus* / *Paternius*, *Urbicus* / *Urbicius*-ekin, errate batera), eta honek Lizoainibarko *Urotz* sortu zuela, baita Artzibarko bereko *Huroa* ere (1268, Felones, 1982, 639. or.), apika. Aldera bitez hauek gorago aipatu *Arroitz*, *Arruitz* / *Arroze* eta *Arroa*-rekin.

5. ONDORIOAK

Errandakotik ondorio hauek atera ditzakegu, besteak beste:

- a) Akaberan *-o(t)z*, *-oi(t)z* eta *-i(t)z* duten Nafarroako (eta bestetako) herri izenetako franko deantroponimikoak dira, eta *-etz* duenen bat ere (*Geretz*) zaizki berekoa da. Hortik ez da segitzen, ordea, horiek (eta *-atz*, *-utz*) dauden-daudenean aparteko bukaerak direla, ikusi den eran akabaila *-(i)(t)z* delako, eta txistukariaren aitzineko bokala zenbaitetan oinarriaren zati. Bokal hori goiko palatala (*i*) denean oinarriko izenaren (*Armendaritze*, *Auritz*) nahiz bukaeraren partetzat (*Beraskoitz*) eman daiteke. Aipatu izen hauek, dena dela eta ikusten den bezala, Erdi Aroan sortu dirateke: oinarriko antroponimoak behintzat sasoi horretan ere (*Armentari*; **Auri* bere hola ez dugu ediren, baina bai *Aurio* eta *Auria*) edo bakarrik sasoi horretan (*Berasko*) dokumentatzen dira. Daitekeena da, halarik ere, *Armendaritze*-n eta *Auritz*-en oinarriaren hondarreko *-i* eta berrekailuaren hasierako *i-* batu izana (**Armendaritiz* > *Armendaritz*, **Auriitiz* > *Auritz*).
- b) Patronimiko sistema eta aztertu ditugun toponimoen sistema bat eta bera da, bai etorkiz (latineko hirugarren deklinabideko *-V* + *-nis* edutezko genitiboa da sorburua), eta bai hein batean jokabidez ere, hartan bukaerak askoz nabarra-goak eta morfologia aise aberatsagoa badira ere, honetan (toponimia sisteman) baino.

- c) Latineko *-o* + *-nis*-etik abiatu behar dugunean, gutxi batzuetan *-oitz* izan da emaitza, eta gehien-gehienetan *-otz* hutsa. Guk azkeneko honetara iristeko toponimoa hartatik igaro zela erran dugu hemen, patronimiko sistemari oharturik, baina eskuarki ez dugu horren ziurtasun erabatekorik, dokumentazioan *-o(t)z* eta egun ere *-o(t)z* dutenak gehiago absolutua direlako, nahiz *-oi(t)z*-en testigantza bakan zenbait izan, egun *-o(t)z* daukatenen artean. Horregatik, daitekeena dela uste dugu, toponimoa Erdi Aroan sortu denean, patronimia sisteman bezala *-(i)(t)z* bukaera zuzenean bokalez akitzen zen antroponimoari erantsia izatea, alegia, erdian *-oi(t)z* (*-Vi(t)z*) aldaerarik ez egotea, gehienetan. Arrazoa hiztunak burutan zeukan atzizkiaren forma *-(t)z* izatea da, ez hainbeste *-itz*, patronimian bezala. Uste honek duen oztoporik handiena hau da: herri izen anitzen oinarrian dagoen antroponimoa antzinatekoa da, edo antzinateko iturrietan agertzen da bederen, ez Erdi Arokoetan, eta, beraz, iturburutzat *-V* + *-nis* hartzen badugu, **-V(t)z*-era iritsi aitzin **-Vi(t)z* tarteko urratsa izan dela kontu egin behar dugu, ezinbestean.
- d) Aurreko multzoko toponimo horietako batzuek *-oitz* dute egun eta *-oitz* ukan dute beti, agiri testigantzei erreparaturik. Onimoren batean (*Beraskoitz*) eraketa berandukoa izanen da (*Berasko* + *-itz*), baina beste batzuetan (*Agoitz*, *Beroitz*, *Itoitz*) latinetik abiatu beharko dugu seguruenera, *-o* + *-nis* bukaera duten formatatik.
- e) Amaieran *-i(t)z* dutenak (*Armendaritz*, *Auritz*, *Ostitz*...) *-o(t)z* daukaten gehienak baino berriagoak direla dirudi, eta kasu markaren ezaugarria (*-us* edo *-um*) galdutakoan edutezko *-(i)(t)z* hartu dutela, zenbait aldiz genitibotik erator balitezke ere, *-i*-dun forma batetik. Alegia, horiek ezin dira arrunki zuzenean latinetik eratorri, geroagokoak dirateke, Erdi Aroan sortu eta eratuak, atzizkia beregaindu zen denborakoak.
- f) Batzuetan toponimoen oinarrian diren jende izenak ez ditugu inon ediren, baina, aurkitu ditugun beste batzuk ikusirik, haiek zein ziren susma dezakegu: **Urtarro* (*Urtarrotz* > *Ustarro(t)z*), **Uztarro* (*Uztarrotz* > *Uztarroze*), etab. Erka bitez *Gaiztarro*, *Lazkarro* eta *Munarro*-rekin.
- g) Behin edo beste, *-arro*-dun antroponimoa egonagatik, herri izenak *-itz* du, ez espero genuen *-o(t)z* (edo *-oi(t)z*), hain segur pertsona izenak **-ar* edo **-arri*-dun aldaeraren bat ere bazuelako: *Munarro* / *Munarritz* (**Munar*, **Munarri*; cfr. *Ahoztar*, *Ahostar*, *Aostarri*).
- h) Argiak edo argikarak direnak «aingura toponimo» deitu ditugu lan honetan. Horiek akabaila bera daukaten beste toki izen batzuetan ere antroponimoak ikustera garamatzate, azalpen errazik ez izanagatik. Hori agitzen da, adibidez, Baztango *Almandoz*-ekin (*Arraioz*, *Lekaroz*...), Erronkaribarko *Bidankoze*-rekin (*Uztarroze*), Ultzamako *Alkotz* eta *Zenotz*-ekin (*Iraizotz*), konparaziorako.
- i) Bestalde, garbi dago gure toponimoetan badirela oraino identifikatu ez ditugun euskal izenak eta bestetarikoak (cfr. *Galdurotz* eta *Oskotz*), eta ikerketak aitzina egitearekin gauzak xehekiago eta argiago ikusiko ditugula. Araiz.

- j) Herri izen anitzen oinarrian den antroponimoa latinaren mundutik, erromatar kulturatik datorkigu. Honek erran nahi du izen horien eramaileak erromatarrak zirela, edota denbora hartako erromatar kulturaren ohikoak ziren ponte izenak ibiltzen zituzten euskaldunak. Badira, hala ere, Pirinioetako antroponimia zaharrarekin esteka egiten duten zenbait pertsona izen, eta ugariak dira, bestalde, Erdi Aroan sortutako toponimoak, sustraian latin munduko edo beste etorki batzuetako antroponimoak dituztenak. Zernahi gisaz, garbi utzi behar da jatorrizko izendapenak ardura latinetik heldu bazaizkigu ere, toponimoen bilakaera euskararen barnekoa izan dela. Hau axola handiko gaia da, erromatarren denboran euskaldunak hemen bizi ginela frogatzen duelako.

6. LABURTZAPENAK

A	Araba.
dat.	datiboa.
e.iz.	etxe izena.
EDH	Alföldy & Witschel, 1997.
erd.	erdara.
errom.	erromantzea.
eus.	euskara.
FHV	Mitxelena, 1977.
G	Gipuzkoa.
gen.	genitiboa.
HE	Gómez-Pantoja, 2013.
her.iz.	herri izena.
Hesperia	Gorrotxategi (koord.), 2005b.
L	Lapurdi.
lat.	latina.
lib.	liburukia.
NB	Nafarroa Beherea.
NEAN	Nafarroako Errege Artxibo Nagusia.
NG	Nafarroa Garaia.
nom.	nominatiboa.
NTEM	Jimeno (zuz.).
p.iz.	pertsona izena.
pat.	patronimikoa.
pr.	protokoloak.
top.	toponimoa.
Z	Zuberoa.

7. ERREFERENTZIAK

Albertos, M.^a L. (1966). *La onomástica personal primitiva de Hispania Tarraconense y Bética*. Salamanca: CSIC & Instituto «Antonio de Nebrija».

- Albertos, M.^a L. (1985). La onomástica personal indígena del noroeste peninsular (astures y galaicos). In J. de Hoz (arg.), *Actas del III coloquio sobre las lenguas y culturas paleohispánicas* (255-310. or.). Salamanca: Universidad de Salamanca.
- Alföldy, G. & Witschel, C. (arg.). (1997). *Epigraphic database Heidelberg*. <https://edh-www.adw.uni-heidelberg.de/home> helbidetik eskuratua.
- Aranbarri, F. (2001). *Ermua-Eitzaga: leku-izenak*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Arin, J. (1969). Contribución al estudio de la toponimia (Ataun). *BAP*, 25, 471-516.
- Ayerbe, M. R. & San Miguel, A. (2013). *Archivo municipal de Ataun (1268-1519)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Azkue, R. M. (1925). *Morfología vasca*. Bilbo: Editorial Vasca.
- Bloomfield, L. (1933). *Language*. Londres: George Allen.
- Caro Baroja, J. (1945). *Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina*. Salamanca: Salamancako Unibertsitatea.
- Carrasco, J. (1973). *La población de Navarra en el siglo XIV*. Iruñea: Nafarroako Unibertsitatea.
- Castillo, C., Gómez-Pantoja, J. & Mauleón, M.^a D. (1981). *Inscripciones romanas del Museo de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.
- Ciérbide, R. (1993). *Censos de población de la Baja Navarra*. Tübingen: Niemeyer. DOI: <https://doi.org/10.1515/9783110911800>
- Ciérbide, R. & Ramos, E. (2000). *Documentación medieval del Archivo Municipal de Pamplona (1357-1512)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Ciérbide, R. & Ramos, E. (2001). *Archivo Municipal de Tafalla (1157-1540)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Crystal, D. (2008). *A Dictionary of linguistics and phonetics* (6. argit). Malden, Oxford & Carlton: Blackwell Publishing.
- De Chene, B. & Anderson, S. R. (1979). Compensatory lengthening. *Language*, 55(3), 505-535.
- Del Barrio, L. (1999). *Ataun. E. 1:15.000*. Donostia: Eusko Jaurlaritza & Ataungo Udala.
- Delamarre, X. (2007). *Noms de personnes celtiques dans l'épigraphie classique*. Paris: Éditions Errance.
- Egurtzegi, A. (2018). On the phonemic status of nasalized / ñ / in Modern Zuberoan Basque. *Linguistics*, 56(6), 1353-1367. DOI: <https://doi.org/10.1515/ling-2018-0024>
- Enríquez, J., Hidalgo de Cisneros, C., Lorente, A. & Martínez, A. (1997). *Foguera de las villas de Vizcaya de 1511*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Euskaltzaindia. (1990). *Nafarroako herri izendegia / Nomenclátor euskérico de Navarra*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Felones, R. (1982). Contribución al estudio de la iglesia navarra del siglo XIII: el libro del diezmo de 1268 (II). Transcripción e índices. *PV*, 166-167, 623-713.
- Foley, J. (1973). Assibilation as universal phonological rule. *Folia Linguistica*, 6(3/4), 251-262. DOI: <https://doi.org/10.1515/flin.1973.6.3-4.251>
- García Larragueta, S. (1957). *El gran priorado de la Orden de San Juan de Jerusalén: siglos XII-XIII*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.

- Gimeno, H. & Velaza, J. (1994). Correcciones de lectura a algunas inscripciones romanas de Navarra. *Anuari de Filologia*, 17(D-5), 189-200.
- Gómez-Pantoja, J. (2013). *Hispania epigraphica*. <http://eda-bea.es> helbidetik eskuratua.
- González de Viñaspre, R. (2013). Leku-izenen itzaletan, toponimia kriseilu. *Administratioa euskaraz* (IVAP), 80, 32-33.
- Goñi, J. (1997). *Colección diplomática de la catedral de Pamplona: 829-1243*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Gorrotxategi, J. (1984). *Onomástica indígena de Aquitania*. Bilbo: EHU.
- Gorrotxategi, J. (2000a). La romanización del País Vasco: aspectos lingüísticos. *Bitarte*, 22, 87-105.
- Gorrotxategi, J. (2000b). Ptolemy's Aquitania and the Ebro Valley. In D. N. Parsons & P. Sims-Williams (arg.), *Ptolemy: towards a linguistic atlas of the earliest Celtic place-names of Europe* (143-157. or.). Aberystwyth: CMCS.
- Gorrotxategi, J. (2003). Las placas votivas de plata de origen aquitano halladas en Hagenbach (Renania-Palatinado, Alemania). *Aquitania*, 19, 25-47.
- Gorrotxategi, J. (2005a). Establishment and analysis of Celtic toponyms in Aquitania and the Pyrenees. In J. de Hoz, E. R. Luján & P. Sims-Williams (arg.), *New approaches to Celtic place-names in Ptolemy's Geography* (153-172. or.). Madril: Ediciones Clásicas.
- Gorrotxategi, J. (koord.). (2005b). *Hesperia: banco de datos de lenguas paleohispánicas*. http://hesperia.ucm.es/consulta_hesperia/onomastica helbidetik eskuratua.
- Gorrotxategi, J. (2018). Euskara antzinatean. In J. Gorrotxategi, I. Igartua & J. A. Lakarra (arg.), *Euskararen Historia* (231-296. or.). Gasteiz: Eusko Jaur-larritza.
- Grupo Mérida. (2003). *Atlas antroponímico de la Lusitania romana*. Mérida & Bordele: Fundación de Estudios Romanos & Ausonius Éditions.
- Hanks, P. (arg.). (2003). *Dictionary of American family names* (hiru liburuki). Oxford: Oxford University Press.
- Hayes, B. (1989). Compensatory lengthening in Moraic Phonology. *Linguistic Inquiry*, 20(2), 253-306.
- Hidalgo de Cisneros, C., Largacha, E., Lorente, A. & Martínez, A. (1988). *Colección documental del archivo municipal de Elorrio (1013-1519)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Hualde, J. I. (1993). Topics in Souletin Phonology. In J. I. Hualde & J. Ortiz de Urbina (arg.), *Generative studies in Basque linguistics* (289-327. or.). Amsterdam & Philadelphia: John Benjamins. DOI: <https://doi.org/10.1075/cilt.105.12hua>
- Hualde, J. I. (2018). Aspiration in Basque. *Papers in Historical Phonology*, 3, 1-27.
- Ibarra, J. (1936?). *Historia de Roncesvallles*. Iruñea: Talleres tipográficos La Acción Social.
- Igartua, I. (2008). La aspiración de origen nasal en la evolución fonológica del euskera: un caso de *rhinoglottophilia*. *ASJU*, 42(1), 171-190.
- Igartua, I. (2015). Diachronic effects of rhinoglottophilia, symmetries in sound change, and the curious case of Basque. *Studies in Language*, 39(3), 635-663. DOI: <https://doi.org/10.1075/sl.39.3.04iga>

- Irigoién, A. (1977). Algunas consideraciones sobre onomástica personal vasca. *Euske-
ra*, 22, 561-623.
- Irigoién, A. (1982). Sobre el topónimo *Gasteiz* y su entorno antroponímico. *Vitoria en
la Edad Media, Actas del I Congreso de Estudio Históricas celebrado en
esta ciudad del 21 al 26 de setiembre de 1981, en conmemoración del 800
aniversario de su fundación* (621-652. or.). Gasteiz: Gasteizko Udala.
- Irigoién, A. (1983). *La lengua vasca en relación con la antroponimia y otras cuestiones
medievales*. Gasteiz: EHU.
- Irigoién, A. (1986). *En torno a la toponimia vasca y circumpirenaica*. Bilbo: egilearen
argitalpena.
- Irigoién, A. (1987). *De re philologica linguae uasconicae II*. Bilbo: egilearen argitalpena.
- Irigoién, A. (1990a). *De re philologica linguae uasconicae III*. Bilbo: egilearen argital-
pena.
- Irigoién, A. (1990b). *Sobre toponimia del País Vasco norpirenaico (observaciones a
la obra Toponymie Basque de Jean-Baptiste Orpustan)*. Bilbo: egilearen
argitalpena.
- Irigoién, A. (1991). Problemas de nomenclatura en la elaboración de mapas topográfi-
cos en áreas vascófonas de administración romanizante hasta el presente.
In H. Knörr & M. A. Líbano (arg.), *Actas de las I Jornadas de Onomás-
tica. Toponimia. Vitoria-Gasteiz, abril de 1986 / I Onomastika jardun-
aldien agiriak. Toponimia. Gasteiz, 1986ko apirila* (159-171. or.). Bilbo:
Euskaltzaindia.
- Irigoién, A. (1992). *De re philologica linguae uasconicae IV*. Bilbo: egilearen argitalpena.
- Irigoién, A. (1995). *De re philologica linguae uasconicae V*. Bilbo: egilearen argitalpena.
- Jimeno, J. M.^a. (1968). *Documentos medievales artajoneses (1070-1312)*. Iruñea: Na-
farroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.
- Jimeno, J. M.^a (zuz.). (1993). *Nafarroako toponimia eta mapagintza / Toponimia y
cartografía de Navarra. Etxarri Aranatz – Arbizu – Lakuntza – Arruazu –
Uharte Arakil – Irañeta – Aralar*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Jimeno, J. M.^a (zuz.). (1996). *Nafarroako toponimia eta mapagintza / Toponimia y
cartografía de Navarra. Aoiz/Agoitz Izagaondoa – Lónguida*. Iruñea: Na-
farroako Gobernua.
- Jimeno, J. M.^a. (2014). *Toponimia navarra VI: Cuenca de Pamplona, Cendea de Itza*.
Iruñea: Udalbide, Pamiela & Euskara Kultur Elkargoa.
- Kajanto, I. (1982 [1965]). *The Latin cognomina*. Erroma: Giorgio Bretschneider.
- Kiparsky, P. (2010). Compensatory lengthening. In Ch. E. Cairns & E. Raimy (arg.),
Handbook of the syllable (31-69. or.). Leiden & Boston: Brill.
- Lacarra, J. M.^a. (1965). *Colección diplomática de Irache, vol. 1. 958-1222*. Zaragoza:
CSIC.
- Lacarra, J. M.^a, Martín Duque, A., Zabalo, J. & Fortún, L. J. (1986). *Colección di-
plomática de Irache, volumen 2. 1223-1397. Índices 958-1397*. Iruñea:
Nafarroako Gobernua, Vianako Printzea Erakundea.
- Lehmann, W. (1992). *Historical linguistics* (3. argit.). Londres & New York: Routledge.
- Martín Duque, A. (1983). *Documentación medieval de Leire (siglos IX al XII)*. Iruñea:
Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.

- Martín González, M., (1987). *Colección diplomática de los reyes de Navarra de la dinastía de Champaña, vol. 1. Teobaldo I (1234-1253)*. Donostia: Eusko Ikaskuntza.
- Martínez Díez, G. (1998). *Colección documental del Monasterio de San Pedro de Cardeña*. Burgos: Caja de Ahorros y Monte de Piedad del Círculo Católico de Obreros de Burgos.
- Menéndez Pidal, R. (1962). *En torno a la lengua vasca*. Buenos Aires: Espasa-Calpe Argentina.
- Ménendez Pidal, R. (1977 [1904]). *Manual de gramática histórica española* (15. argit.). Madril: Espasa-Calpe.
- Ménendez Pidal, R. (1986 [1926]). *Orígenes del español* (10. argit.). Madril: Espasa-Calpe.
- Ménendez Pidal, R. & Tovar, A. (1962). Los sufijos españoles en *-z* y especialmente los patronímicos. *BRAE*, 62, 371-460.
- Mitxelena, K. (1954). De onomástica aquitana. *Pirineos*, 10, 409-455.
- Mitxelena, K. (1957). El genitivo en la onomástica medieval. *Emerita*, 25, 134-148.
- Mitxelena, K. (1964a). *Sobre el pasado de la lengua vasca*. Donostia: Auñamendi.
- Mitxelena, K. (1964b). *Textos Arcaicos Vascos*. Madril: Minotauro.
- Mitxelena, K. (1971). Toponimia, léxico y gramática. *FLV*, 9, 241-267.
- Mitxelena, K. (1976). Onomástica y población en el antiguo reino de Navarra: la documentación de San Millán. *XII Semana de Estudios Medievales 1974* (49-71. or.). Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea, CSIC.
- Mitxelena, K. (1977). *Fonética Histórica Vasca* (2. argit.). Donostia: Julio Urkixio mintegiaren argitalpenak, Gipuzkoako Aldundia.
- Mitxelena, K. (1982). Sobre la historia de la lengua vasca. *ASJU*, 16(1), 141-156.
- Mitxelena, K. (1984). Romanización y lengua vasca. *FLV*, 44, 189-198.
- Mitxelena, K. (1997 [1973]). *Apellidos Vascos* (5. argit.). Donostia: Txertoa.
- Oceja, I. (1983). *Documentación del monasterio de San Salvador de Oña (1032-1284)*. Burgos: Ediciones J. M. Garrido.
- Paul, H. (1886). *Prinzipien der Sprachgeschichte* (2. argit.). Halle an der Saale: Max Niemeyer.
- Rohlf, G. (1952). Sur une couche preromane dans la toponymie de Gascogne et de l'Espagne du Nord. *RFE*, 36, 209-256.
- Salaberri, P. (2003). *Euskal deiturategia: patronimia*. Bilbo: UEU.
- Salaberri, P. (2004). *Nafarroa Behereko herrien izenak: lekukotasunak eta etimologia*. Iruñea: Nafarroako Gobernu.
- Salaberri, P. (2005). Origen y significado de la toponimia vasca de Navarra. In J. L. Ramírez Sádaba (arg.), *La Onomástica en Navarra y su relación con la de España: actas de las primeras Jornadas de Onomástica* (91-127. or.). Iruñea: NUP.
- Salaberri, P. (2009). *Izen ttipiak euskaraz*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Salaberri, P. (2011a). Pirinioetako euskal toponimoak: direnak eta diratekeenak. In J. A. Lakarra, A. Sagarna & P. Salaberri (arg.), *Pirinioetako hizkuntzak: lehena eta oraina / As luengas d'os Pirineus: passau y presén / Las lengas deus Pireneus: passat e present / Les Llengües dels Pirineus: passat i present* (977-1005. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.

- Salaberri, P. (2011b). Sobre el sufijo occidental *-ika* y otras cuestiones de toponimia vasca. *FLV*, 113, 139-176.
- Salaberri, P. (2011c). De toponimia vasco-pirenaica: sobre el sufijo *-otz*, *-oz(e)*. *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 53, 33-63. DOI: <https://doi.org/10.3406/onom.2011.1724>
- Salaberri, P. (2012). El elemento vasco en la obra *Toponimia hispánica: origen y evolución de nuestros topónimos más importantes*. *FLV*, 114, 159-167.
- Salaberri, P. (2013). Topónimos alaveses de base antroponímica acabados en *-(i)ano*. *FLV*, 116, 245-271.
- Salaberri, P. (2014). Topónimos alaveses de base antroponímica que tienen *huri* o *villa* como formante. *FLV*, 118, 367-392.
- Salaberri, P. (2015a). *Araba / Álava. Los nombres de nuestros pueblos*. Gasteiz: Euskaltzaindia & Arabako Foru Aldundia.
- Salaberri, P. (2015b). Nola erabili onomastikaren ekarpenak dialektologia ikerketetan. *Lapurдум*, 3. ale berezia, 237-271. DOI: <https://doi.org/10.4000/lapurдум.2675>
- Salaberri, P. (2016). En torno al sistema toponímico vasco: los antrotopónimos. *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 58, 251-275.
- Salaberri, P. (2017). Estudio de los nombres de los pueblos y despoblados del valle de Gesalatz (Navarra). *FLV*, 124, 219-250.
- Salaberri, P. & Salaberri, I. (2016). An introduction to Basque aspiration: the contribution of onomastics. *FLV*, 122, 365-391.
- Salaberri, P. & Zaldúa, L. M. (2020). *Gipuzkoako herrien izenak: lekukotasunak eta etimologia*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Séguy, J. (1951). Le suffixe toponymique *-os* en Aquitaine. *Actes et Mémoires du Congrès International de Toponymie et d'Anthroponymie*, 3(2), 218-222.
- Solin, H. & Salomies, O. (1994). *Repertorium nominum gentilium et cognominum latinorum* (2. argit.). Hildesheim, Zürich & New York: Olms & Weidmann.
- Trask, R. (2015). *Trask's historical linguistics* (R. McCollen edizioa, 3. argit.). London & New York: Routledge.
- Ubieto, A. (1951). *Colección diplomática de Pedro I de Aragón y Navarra*. Zaragoza: Escuela de Estudios Medievales, CSIC.
- Ubieto, A. (1954). *Obituario de la catedral de Pamplona*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.
- Ubieto, A. (1976). *Cartulario de San Millán de la Cogolla (759-1076)*. Valentzia: Instituto de Estudios Riojanos, Monasterio de San Millán de la Cogolla & Anúbar Ediciones.
- Untermann, J. (1998). La onomástica ibérica. *Iberia*, 1, 73-85.
- Vallejo, J. M.^a. (2005). *Antroponimia indígena de la Lusitania romana*. Gasteiz: EHU.
- Yarza, V. (2015). Notas sobre toponimia de origen romano en Bizkaia. *FLV*, 120, 345-384.
- Zabalo, F. J. (1972). *El Registro de Comptos de Navarra de 1280*. Iruñea: Nafarroako Foru Aldundia, Vianako Printzea Erakundea.